

TOKIKOM

karkara

Orioko eta Aiako aldizkaria
2013ko ekainaren 7a
338. zenbakia. 24. urtea



Herritik herrira kantari

Kantua bihotz altxatzaile den heinean Manuel Urkizuren ahotsa ere hala da. Herriko kantuz betea duen bihotzetik kantari alaitzen du herria

05

Orioko kontuak

Euskararen kale neurketa

08

Kirol elkarrizketa

J.A. Makazaga, *Makatza*

10

Aiako berri

Txirindulari lasterketa

25

Herritarra

Guillermo De La Calle

BIRZIKLAGARRIA NAIZ.

Pentsaera, jarrerak, ohiturak... aldatzeko gai naiz. **Gipuzkoarrok 2016rako %60 birziklatzea lortu behar dugu.** Eta nik aldaketa horretan parte hartu nahi dut.

 *Gipuzkoa*
BERRIA

BAGOAZ!

GIPUZKOA 2016 > %60 BIRZIKLATUTA

Orioko Futbol Taldeari

1

Lehenik zorionak Joseban neskeri, saiatu dira eta igoera sari. Zorionak baita ere gure Joxebari, hurrengo urtean eutsi zuk aurtengoari.

2

Kadete jubenilak eta preferente ibili diren arren guztiak potente, aurtun faltatu zaie bukatzea fuerte, baloia utzi behar hurrengo urte arte.

3

Aldapa elkartearen afari ugari, denek irabaztea zelako opari. Mila esker ta zorion emanaz berari, azkeneko bertsota presidenteari.

338

karkara

Orioko eta Aiako aldizkaria

Kultur Etxea
Eusko Gudari, 26
20810 Orio
943 831 527

Editorea
Karkara taldea
kultur elkarte

Zuzendaria
Lore Berasaluze

Erredakzio taldea
Irati Agirreazaldegi,
Onintza Aiestaran,
Iñigo Gaiton,
Iker Gurrutxaga, Eli Lasa
eta Idurre Lizarralde

Publizitatea
Iker Gurrutxaga

Publizitatearen diseinua
Iker Gurrutxaga

Testuen zuzenketa
Elizabete Manterola
eta Rikardo Uzkudun

Ale honetako laguntzaileak
Jon Agirresarobe,
Aitor Arregi,
Jaione Illarramendi,
Xabier Lizaso,
Joxean Manterola,
Antxon Mancisidor

Laguntzaileak
Eli Huegun
eta Iñaki Iturain

Diseinua
Karkara taldea

Banatzzaileak
Kattalin Bollain eta
Esti Uranga (Orioko)
Eli Irureta (Aia)

Inprimategia
Gertu Koop. E. (Oñati)
Lege gordailua SS-346/90
ISSN 1132-1105
Tirada 3.050 ale

KARKARAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien edota iritzien erantzukizunik. KARKARAREN argitaratutakoa berremen daiteke, osorik edo zatika, baldin eta iturria aipatzen bada.



KARKARA

PUBLIZITATE PREZIOAK

Iragarkia alero jarrita

Modulu bat	12,00 €
Bi modulu	24,00 €
Hiru modulu	36,00 €
Lau modulu	48,00 €
Sei modulu	72,00 €
Zortzi modulu	96,00 €
Orrialde erdia	120,00 €
Orrialde osoa	204,00 €

Iragarkia behin jarrita

Modulu bat	16,00 €
Bi modulu	31,00 €
Hiru modulu	47,00 €
Lau modulu	64,00 €
Sei modulu	95,00 €
Zortzi modulu	127,00 €
Orrialde erdia	174,00 €
Orrialde osoa	306,00 €

Publizitatea kontratatzeko
Iker Gurrutxagarekin hitz egin
(943 831 527) edo
karkara@karkara.com
Prezio hauei BEZa gehituko zaie

LAGUNTZAILEAK



EUSKO JAURLARITZA

Kultura Sailak
diruz lagundutako
hedabidea

Emigratzaile euskaldunak zigortu egiten ditu Bilduk

Bilduk gobernaturako Orioko Udalak euskal diaspora zigortzea erabaki du beren etxebizitzaren OHZaren %100a erre-kargua jarritz.

Beharrak derrigortuta utzi behar izan genuen Oriko familia batzuk: Frankoren-gandik ihesi batzuk; lan bila beste batzuk. Hala ere, gure herri maitearekin lotzen gaituen sokari eutsi egin diogu, belaunaldiz belaunaldi. Bide horretan, aukera dugunoro herrira bueltatzea ahalbidetzen digu bertako etxebizitzak.

Euskal Herriko, eta batez ere, Orioko enbaxadoreak gara. Frankismoaren eta Trantsizioaren urte gogorrenetan eraso asko jasan behar izan ditugu euskaldunak izateagatik. Baina Bildurentzat higitzen espekulazioaren errudunak gara eta herritar guztiak legearen aurrean berdinak garela dion legea zapaltzen duen gehigikeriara eraman gaitu. Eskerrik asko Bildu irain honengatik eta gu bigarren mailako herritar gisa hartzeagatik. ■ **Maria Aldave** (Erredakzioan itzulia)

Eroski berria eraikitzeko lizentzia eman du Udalak

2008ko martxoaren 4an Muntori buruz egindako udalbatzan –inoiz ahaztuko ez dugun udalbatzan–, erakunde guztien onarpenez EAJk emandako bozka indartua eta bermatua izan da 2013ko otsailaren 25eko udalbatzan. Gai ber onartu egin baita gehiengo absolutuaren babesarekin.

2008ko plenoa ahaztezina izan zela esaten dugunean, ez da funtsik gabeko adierazpen bat. Izan ere, udalbatza hartan, orduan udal gobernuan geundenok iraindu –mehatxatzeaz gain–, eta beren jarraitzaileak jarrera totalitarioen erabilera egitera berotu zituzten gaur udal gobernuaren ardura dutenek. Ahaztezina eta sutan jartzeko modukoa izan zen, jarrera antidemokratiko horien bitartez haiek bezala pentsatzen ez genuenon adierazpen askatasuna hertsatu nahi izan zelako.

Justizia epaitegietan hamaika apelazio eta helegite egin ondoren, lortu duten gauza bakarra onarpen prozesua 5 urtez luzatzea eta udal altxortegitik dirutza xahutzea izan da. Izan ere, epaitegietako sententzia guzti-guztiak Muntoko Plan Partzialean azaltzen ziren postulatuaren aldekoak izan dira. Epaitegietan egiaztatu ahal izan da indarrean dauden lege eta araudi guztiak zehatz-mehatz bete izan direla: ez zen babestutako etxebizitzarik eskatzen, eta, Mun-

toko Plan Partzialean hainbat daude; gutxienez 3.750 metro koadroko eremu libre eskatzen zen, eta, Munton 4.810 metro koadro daude; 223 aparkaleku eskatzen ziren, eta, 702 daude Munton.

Horretaz guztiaz gain, Muntoko Plan Partzialari esker kirol eskaintza aberastu egin da; Ikastolak bere hezkuntza proiektua garatzeko aukera izan du; merkataritza aukera zabaldu egin da; eta pribatuak ziren lur eremuak publiko izatera pasa dira gune berdeak, jolastokiak eta oinezko bideak sortuz.

Orioko EAJk, gezurrak eta doitasun eza erabiliz, herritarrengan oker dagoen ideia bat sortu nahi izan dutenak salatu nahi ditu. Europar erregimen jakin baten propaganda bitartekoak erabiliz, hau da, gezur bat behin eta berriz errepi-katuta egi bihurtuko zelakoan, oriotarren iritzia aldatu nahi izan dute. Eskerrik oriotarrak ez diren tontoak eta tuntunak eta guztiz demagogikoak diren adierazpen horiek ez dituzten sinistu.

EAJk gaur egun dauden arduradun politikoei hainbat galdera egin nahi dizkie: 2008ko martxoaren 4tik Planaren kakotxa bat bera ere aldatu gabe plana onartu ondoren, zeintzuk dira arrazoiak lehen oriotarrentzat *oso txarra* zen elementu hura, inongo zaratarik gabe, orain martxan jartzea? Izan ere dekretu bidez, martxoan, guztietan txarrena zen merkatal gune horri lizentzia eman zaio, eta inork ez du inongo aipamenik egin.

Zergatik *lagundu dute* oriotar guztien baliabide ekonomikoak epaitegietan xahutzen, bizi dugun garai hauetan baliabide horiek gizarte laguntzetara bideratzea egokiagoa zenean?

Zertara zetozen oraingo kudeatzaileen jarrera totalitarioak Munto gaiarekin lehen, orain gai berdin-berdina defendatzen dutenean? ■ **Orioko EAJ**

Batzordean huts

Gogoan al duzue EAJ alderdiak Etxeluzerosteko prozesua zalantzan jarri eta ogasun batzordea egitea eskatu zuela? Alkateak deituta gaia lantzeko pasa den asteartean egin zen ogasun batzordea eta EAJ alderdiko ordezkariarik ez zen azaldu. Horrelaxe dira kontuak

■ **Orioko Bildu**

Bost gezur, galdera bat

EAJ alderdiak Munto Planari buruz egindako azken idatzian zenbait gezur aipatzen dira. Ez da lehen aldia herrigintza egiteko gezurra darabilena. Hona he-

men adibide gehiago.

Bat. Ez Bildu eta Orain ez ziren existitzen Munto Plana plenora eraman zenean, 2008. urtean. Beraz, ezer baino lehen garbi utzi: egun udal gobernuan daudenez zuten aurreko gobernu iraindu eta mehatxatu gutunean dioten moduan.

Bi. *Munto planak ez du kontrako sententziarik jaso*. Horrelaxe diozue azken gutunean eta gezurra da. Hain justu, horrek atzeratu du hainbeste plan orokorraren onarpena. EAJ alderdia Orioko Udal gobernuan zegoen bitartean hiritzinta planari beharrezko dokumentuak atxiki ez zitzaizkiolako. Txapuz horrek eragin du oriotar guztion dirua abokatuetan gastatu beharra.

Hiru. Jolas eremuak eta oinezkoentzako espazioak eraiki omen dira Munton. Ez zen ordea zuen lehen aukera. Costaseko legeak behartu zaituzte horretara; hori da egia osoa. Bestela hondartzako itxura izango zuen Muntok: biztanleria dentsitate baxuko etxeak, garestiak eta erresidentzialak.

Lau: kontatzen ez den horretan dago beharbada gezurrik handiena, eta mingarriena. 2011. urteko maiatzean sinatu zen Orioko Udala ekonomikoki lotzen duen hitzarmen bat; aurreko EAJ alderdiko alkateak sinatua. Alkateza utzi aurreko sinadura izan zen, korrika eta presaka egindako maniobra; Munton dauden garaje batzuen salmentari buruzko hitzarmena; partzialki gauzatutakoa eta erabat lotutakoa. Hori da jaso dugun herentzia. Hitzarmena ez betetzeak ondorio ekonomikoa izango luke, Plan Orokorra bertan behera uzteak izango luke bezala. Barrena behar du gero gobernu osatzeko gehiengorik lortzen ez zuela ikusita inbestidura aurreko egunetan hitzarmena sinatzeko, Orioko herria baldintzatuz. Eta horren garapenaz hurrengo gobernuari kontuak eskatzeraz dator EAJ.

Berriro diogu: Munto plana ez da gure proiektua. Guk ez genuen Eroski honek duen azalero gune komertzialik bultzatuko. Baina Orioko Udalera sartu ginean jendea bizi zen Muntoko eraikinetan eta planaren gauzatzea lotzen zuten hitzarmenak sinatuta zituen aurreko udal gobernuak. Eskuak lotuta, eta hori hausteak ekonomikoki hankaz gora utziko luke gure herria.

Bost. Azkena. Espediente honi buruz herria informatzeko arazorik ez dute, beren modura, gezurrekin noski. Baina beste zenbait erantzukizunen aurrean oraindik ez dute ezer esan. Tartean bada bat bitxia: 2013. urtean 215.000 euroko

21. orrialdean jarraitzen du

Euskararen erabilera jaitsi egin da kale neurketaren emaitzen arabera

Bi urtetik behin egiten da euskararen kale neurketa Orion. Aurten egin den neurketak datu kezkarriak erakutsi ditu: batez-beste duela bi urte baino zazpi puntu gutxiago hitz egiten da euskaraz Orion

Euskararen erabilerean aurtengo kale neurketa maiatzaren 15etik 19ra egin zuten Orioko bi gaztek Udalarentzat. Guztira, 3.997 herritarren hizkuntz jarduna neurtu zuten asteazkenetik igandera bitartean egunero egiten diren hainbat ekintzatan: erosketak egiten, parkean, tabernan... Lagina hain zabala izanda, emaitzak fidagarritasun handikoak dira; erreore-marjina, berriz, oso txikia.

Emaitza nagusiak honakoak izan dira: haurren % 88,50ek egiten du euskaraz; gazteen artean ere erabilera-maila berdintsua da: % 88,55ekoa; helduek % 55,87 egiten dute euskaraz eta zaharrek, bukatzeko, % 69,59.

Guztira, Orioko adin-talde denak konstante hartuta, euskararen erabilera-maila % 66,37koa da. Orain dela bi urte baino 7 puntu gutxiago. Nabarmenezkoa da azken urteotan Oriora kanpoko jende asko etorri dela eta, asko euskaldunak izan arren, horrek eragin du euskaldunen dentsitatea pixka bat jaistea.

Orioko Udaleko euskara teknikari Jabier Zabaletaren ustez, *helduen arteko erabilerrari dagozkion datu kaxkar horien atzean dagoena, batez ere, honako hau da: kontzientzia linguistiko ahula daukagula euskaldunok eta erraz egiten dugula gaztelaniaz gure artean ere.*

3.997 herritarren hizkuntz jarduna neurtu zuten asteazkenetik igandera bitartean egunero egiten diren hainbat jardunetan

Euskara Zerbitzuak duela hogeita bost urtetatik hona neurtzen du euskararen erabilera herriko kaleetan. Urtero egiten zen neurketa hasieran, baina bi urtez behin egitera pasatu da azken hamabost urteotan. Neurketa beti maiztzean egiten da, garai eta ordu berdinetan, datuak elkarren artean konparagarriak izateko.

Neurketa egiterakoan, kalean dabilen jende guztiaren jarduna hartzen da kontutan: zein ari den euskaraz, zein gaztelaniaz edo beste hizkuntzaren batean, zein den beren sexua, zein adin taldeetan sartzen diren eta bestelako informazioa.



Kale neurketa egiteko garaian eguneroko jardunean entzuten dituzte herritarrak. KARKARA

Euskaraz bizi-bizi

Euskararen kontzientziazioan eragin nahian, Orioko Udalak *Euskaraz bizi-bizi* kanpaina jarri zuen martxan duela hilabete batzuk. Horren barruan sartu dituzte, besteak beste, euskaraz bizi nahi duten elkarte eta norbanakoei zuzendutako tailerrak eta umorezko bakarrizketak. Tailerretan 30 inguru lagun izan ziren eta umoreko bakarrizketa entzutera 100 inguru lagun gerturatu ziren Kultur Etxera.

Tailerretan zein fokotan egin behar den indarra jakin nahi izan du Orioko Udalak eta zein gunetan egin behar den lan.

Jabier Zabaletaren arabera, azken hamarkadetan ahalegin handia egin dugu euskaldunok lehen gaztelaniak okupatzen zituen hainbat eremu formaletan euskara zabaltzeko: eskoletan, administrazioan, komunikabideetan... *Baina, azken urteotan, ustekabean, Orioneuskararenak ziren espazioak utzi dizkiogu gaztelaniari, eta, ondorioz, gaztelania ere normaltzen ari da gurean, gaineratu du euskara teknikariak.*

Hogeita hamabi lagun Salatxon

JON AGIRRESAROBE
EUSKARA ZINEGOTZIA

Kale neurketaren emaitzak garbi kasko erakutsi du: haur eta gazteen euskara erabilera datua zoragarria den bezala, helduen erdiak egiten du euskaraz gure herrian, gaztelaniaz bezainbeste ia. Horiek guztiak ez dira euskaraz ez dakiten herritar berriak, euskaraz dakien herritar askok ere ez du erabiltzen. Dinamika hori hauste-ko eta oriotarren hizkuntza kontzientzian eragiteko sortu genuen *Euskaraz bizi-bizi* kanpaina. Eta lehen pausoa azken bi asteazkenetan Salatxo aretoan egin dugun topagunea izan da. Lehen saioan 32 oriotar bildu ginen. Egoeraren diagnosis osatu eta eragin eremuak identifikatu genituen denon artean. Bada zer egina.

Munduko zapaten erakusketa ikusgai Arkupeko establezimenduetan

Ekainaren 1ean jarri zituzten zapatak jendaurrean eta hilaren 30era arte iraungo du zapaten historia azaltzeko egin duten erakusketak. Guztira 80 zapata mota ikusi ahal izango da



Zapatak eta haren gaineko informazioa jarri dute erakusleihoetan. KARKARA

Aurretik ere Kultur Etxean erakusketa egin bazuten ere, munduko zapaten historiari buruzko bilduma kalera atera dute orain Arkupe elkarteko dendariak.

Hala, beren erakusleihoak hanga eta hemengo zapatekin apainduko dituzte datorren ekainaren 30a arte. Ezagutzen diren zapata zaharrenetatik hasi eta gaur egungoak arte ikusteko aukera izango da bertan.

Hainbat tokitako oinetakoak ikusteko aukera izango da Arkupekoen erakusleiho, denda eta tabernetan: Egipto, Israel, antzinako Erroma, Grezia zaharra, Turkia, Pakistan, India, Japonia, Txina, Ingalaterra, Ipar Amerika, Hego Amerika, Afrika, Europa...

Modelo guztiak benetako eskalan egin dituzte, gehienak maché paperarekin. Guztira 80 inguru zapata mota ikusteko aukera izango da herriko 47 saltokitan.

Altxorraren bila eskola umeekin

Zapata erakusketari zentzu ludikoa eta didaktikoa eman nahian, Orioko Herri Ikastolako zuzendariak, Zigor Saizarrek, jolas bat prestatu die Arkupeko dendariari.

Erakusleioz erakusleio eta dendaz denda joateko, *altxorraren bilaren* antzeko jolas modukoa proposatu die Saizarrek Arkupekoei.

Hala, zapaten ezaugarriak, historia eta dendaren berezitasunak kontuan hartuta, erakusleiohen inguruko pistak sortu ditu Ikastolako zuzendariak.

Horrez gainera, beste herrietako ikasketxeak gonbidatuko dituzte Oriora etorri eta jolas horretan parte hartu dezaten.

LABUR

Lanak

Plaza berria abeslari kalean

Aurreko astean hasi zituzten, Antilla jate-txearen pareko eremua plaza bihurtzeko lanak Abeslari kalean. Horretarako Igez S.L. -Ustar- enpresa kontratatu du Orioko Udalak eta 17.000 euro gastatu ditu. Lehen bizikletak eta motoak uzteko tokia zena espaloiarekin berdindu eta eserlekuak jarri dituzte. Hemendik aurrera ambulatorio ondoan izango dute motoak uzteko tokia motorzaleek.

Belar txarren aurkak tratamendua

Ekainaren 4an hasita, belar txarrak kentzeko herbiziden tratamendua ematen ari da Udala herriko hainbat tokitan; batez ere espaloi eta zokoetan hazten diren belarren kontra. Abaromendi eta hondartza inguruan hasi ziren tratamenduekin eta, ondoren, kaskoan eman zuten, behar den tokietan. Dike ingurua eta Anibarko Portua izango dira tratamendua aplikatuko duten azken tokiak. Udaletik jakinarazi dutenez, erabiliko den herbizida ez da kaltegarria txakurrentzat; baina, hala ere, kartelak jarriko dituzte abisuekin. Lanak 10 egunetarako bukatzea aurreikusi dute.

Kultura

'Coral Briancó' ren kontzertua

Larunbaterako, ekainaren 8rako, kontzertu berezia antolatu dute Salatxo abesbatzak eta Orioko Udalak. Emanaldia Sant Celoniko -Bartzelona- *Coral Briancó* koruarena izango da, iluntzeko 19:00etan izango da, Orioko elizan. Kataluniako koruak 15 abesti eskainiko ditu, horien artean Kataluniako abesti herrikoiak: *Rossinyol*, *Cançó de la sabatera*, *Senyor Sant Jordi*, *Ton Pare no té nas*, eta *L'orenet de Queralt*. Kontzertuaren bukaeran, Coral Briancó-k eta Salatxok elkarrekin kantatuko dute.

Azken zertzeladak baino ez dira falta San Pedro festetarako

Hiru bilera egin ditu festa batzordeak aurtengo sanpedroak antolatzeko. Oraindik ordutegi batzuk eta ekintza batzuk zehazteke badaude ere, ia guztia prest dago jai-giroan murgiltzeko

Segituan iritsiko da ekainaren 28a eta di-da batean izango dira sanpedroak Orion. Festetako egitaraua ekainaren 21eko KARKARAN kaleratuko dugun arren, ia guztia lotuta dauka festa batzordeak.

Bezperako deiadarrean euskaldun berriak omenduko ditu Orioko Udalak. *Euskaraz bizi-bizi* kanpainaren barruko ekintza bat gehiago izango da hori. Segidan herri afaria izango da.

San Pedro eguna ekitaldiz josita izango da. Goizean Candás -Asturias- herriko musika bandako 80 musikariek kontzertua emango dute plazan. *Iaz, abuztuan, Orion kontzertua eman nahi zutela esanaz etorri zitzaizkigun. Zorte galanta izan dugu halako maila duen bandak Orion jotzeko eskatu izanagatik*, esan digu Agirresarobek. Arratsaldez trikitalari txapelketa, Euskadiko giza-proba txapelketako finalerdia eta sagardo eta txakolin dastaketa izango dira. Baita hurren danborrada ere.

Hilaren 30ean Aniztasunaren Jaia izango da eta uztaillaren leian umeena.

ZENBAKIA

30.000

Euro. Festak asteburuan izango direnez, indar berezia egin du festa batzordeak sanpedro erakargarriak egiteko. Sanpedroetarako aurrekontua 30.000 eurokoa izango da eta ekintzaz bete-betetako festak egiten erabili dute dirua. Lau festa egun izango ditugu oriotarrok.



Aurten ere trikitalari txapelketa, hurren danborrada eta aniztasunaren jaia izango dira. KARKARA



KARKARA

“Orain arte bezala denek joka dezaten saiatzeko eskatu nahi diet berriei”

Jesus Antonio Makazaga Makatza

Orioko Futbol Taldeko presidentea

Orioko Futbol Taldeko presidente kargua lagatzeko erabakia hartu du J.A. Makazaga Makatzak hamabost urtez Orioko Futbol Taldearen gidari izan ondoren. Zuzendaritza batzorde osoa joango da berekin eta aurki hasiko da lanean berria.

IRATIAGIRREAZALDEGI

Mendibeltzen norke ez du ikusi *Makatza* harmailetatik etxeko jokalaria animatuz Imanol Urkizuk taldearentzat propio egindako abestiak lagunduta? Hori izan da 15 urtean asteburu gehienetako bere plana eta ardura Orioko Futbol Taldeko presidente izan den heinean. Orain ere joango da futbol zelaira, baina lasaia go, zuzendaritza utzita.

Nola hasi zinen Orioko Futbol Taldean? Futbol zalea beti izan naiz eta zelai zaharreen Erregionaleko partidak ikusteko ordaindu behar zenean, inguru guztia toldoekin ixten laguntzen nuen. Behin

Atorrak galdetu zigun ea zuzendaritza hartuko genukeen. Afari baten bueltan hitz egin eta baiezkoa emanez atera ginen asko pentsatu gabe.

Gure lan handiena urte hasieran jendea bilatu eta martxan jartzea izan da. Gainontzean asteburuetakoa partidak, tabernako txandak... antolatzea. Gero etxeko partida denetara etortzen saiatzen naiz, talde bakarra jarraituz gero ez litzateke eta bidezkoa.

Hasieran hiru talde ziren eta pixkanaka hazten joan da taldea. Ume mordoa dago futbol-eskolan; federatuetan, berriaz, infantilak, futbol zortziko infantilak, kadete neskak eta mutilak, jubeni-

len bi talde eta erregional mailako mutilak. Talde bakoitzak entrenatzailea eta ordezkarria behar ditu eta horiek lortzea da askotan zailena. Orion inork ez du kobratzen eta borondatez etorriko den jendea ekartzea zaila da; baina guk erantzun ona jaso dugu.

Taldeari hainbeste urtean gauza asko eman diozu, baina eskatu ere bai, ezta?

Jokalariei beti eskatu diet serio etortzeko, taldearen izenak errespetua merezi duelako eta ezin delako beste zelaietara joan eta fama txarra jasotzen ibili. Kirolean ahalik eta ondoen entrenatzen eta lanik onena egiten saiatzen gara eta gauzak ondo atera ezean izan dadila besteak gehiago izan direlako, ez aste guztian entrenamenduetara huts egin delako.

Esan izan didate entrenatzaile eta jokalariek kobratzen ez badute ez nagoela ezer eskatzeko, baina gu ere ezer jaso gabe gabiltza eta gustatzen zaiolako etortzea erabaki duenak hartu du arduraz; betetzea dagokio.

Herrietako klubek lehiari garrantzia kendu eta pertsoneri eman behar dietela zioen futbolari batek. Hala uste al duzu?

Taldea herritarrentzat zabaldu dugu beti. Urteren batean preferente mailara igo eta entrenatzaileak eskatuta kanpotik pare bat ekarri genituen maila mantentzeko asmoz, baina sekula ez dut nahi izan taldea kanpotarrez betetzea. Kanpoko bat edo beste egon da beti, baina bila joanda baino beren kabuz etorrita.

Inguruko klubetan ere hala izaten da?

Batzuek baliabide gehiago dituzte eta entrenatzaileek ez ezik jokalariek ere

zertxobait kobratzen dute. Hemen eman diegu inoiz afaria hiru partidatik bi irabaziz gero, baina giroa sortzeko.

Urte hauetan futbol zelaiaren aldaketak sortu al dizu buruhauste gehien?

Sorpresa hartu genuen, futbol zelaia txikitzeke obrak egiten hasi baino astebete lehenago jakin baikenuen. Zelaia kendu eta gero berria egiteko asmoa zuten; berria egin arte zaharra ez kentzeko eskatu genuen guk. Hura kendu eta auskalo zer gertatuko litzatekeen berria egin arte! Horren harira egin genituen manifestazioak, plazan entrenatu...

Gero amore eman genuen guk eta baita Udalak ere, futbol zelaia txikituz haiek lanean jarraitu ahal izateko. Bitartean Realekoekin hitz egin eta Zubietan egiten genituen entrenamendu eta partidak; baina horrela ibiltzerik ez zegoenez zelai txiki bat prestatu eta han ibili ginen harik eta orain dela zazpi urte Mendibeltz ireki arte.

Haserreak haserre futbol zelai berria egiteko aintzat hartu gintuzten, planoak erakutsi eta gure eskari batzuk onartuz; esaterako, zelaiaren malda, zelai azpian lokalak banatzerakoan bulegoa eta biltegia batean jarri eta gimnasioa egitea. Ez genuen lortu harmailak beste aldean jartzea kostako legea zela-eta.

Herri erdigunean egonik jende gehiago etortzen al da?

Lehenengo futbol zelaiaren buelta guztian jende asko egoten zen eta orain ere harmailetan jendea elkartzen da. Arrauna izan da beti indartsuena eta ni ere arraunean jarduna naiz, baina futbolak ere erakartzen du jendea. Udal ordezkariak dira etortzen ez direnak eta lehen zuzendaritzan ibilitakoak eta jokalaririk izandakoak ere gutxi.

Futbol zelaia sofbolekoekin eta Getaria-koekin partekatzen duzue.

Ondo moldatzen gara eta arazo txikiren bat sortu bada ere konpondu dugu. Orain dela gutxi sofbolekoek asteburu guztian Espainiako txapelketa zuten; Realekoekin hitz egin eta Zubietara joan ginen gu. Ketakoek, berriz, onartua dute haiek kanpokoak direla eta entrenamenduak azken orduan egiten dituzte. Entrenatzaile guztiek nahi lukete denbora gehiago eta zelai guztia erabiltzeko aukera, baina ordutegiak egoki antolatuz behar direnez, ezin da.

Zergatik erabaki duzu uztea?

Etxekoek eta ingurukoek lan asko egin izan dute taldearengatik eta asteburuetako beren lanaren ondoren futbol zelaira etorri beharrekin pixka bat nekaturta txanda bila hasi beharko nuela esan zidaten. Nik argi neukan ordezko inor ez bazen ez nuela utziko. Orain zuzendaritza hartzekoak diren horiek eskola fut-

boleko umeekin hasi ziren; guraso batzuk futboleko ibilitakoak dira, eta entrenatzaile titulua duenik ere bada. Iaz atzera egin zuten arren, aurten proposamenari baiezko erantzuna eman diote. Beste batzuei ere galdetu diet, baina inork ez dit baietzik eman, beraz, azken uneko ezustekorik ezean taldearen zuzendaritza horien esku utziko dut.

“Futboleko gastu asko daude, baina era berean inbertsioa ere bada gazteak zerbaiti lotuta eduki eta osasuntsu hazteko”

“Haserreak haserre futbol zelai berria egiteko aintzat hartu gintuzten, planoak erakutsi eta gure eskari batzuk onartuz”

Lortutako emaitzekin gustura al zaude?

Egindakoarekin lasai eta gustura joango naiz. Uste dut nahiko txukun egin dugula lan eta hurrengoek aurreneko urtean behar bada gauza asko ez dute aldatuko, baina aurrerantzean bai. Aldaketa etorriko da, batik bat krisiaren eraginez. Lehen nola edo hala dirua biltzen genuen fitxak ordaintzeko, aurrera eta atzera ibiltzeko, jokalariei noizean behin bazkari-afariren bat emateko... Hemendik aurrera diru-laguntzak lortzea zailagoa izango da. Futbola, baloi baten atzetik 22 lagun ibiltzea dela eta merkea izan behar duela uste du askok, baina fitxak, arropak, bidaiak, arbitroak...gastu asko daude. Baina era berean inbertsioa ere bada gazteak zerbaiti lotuta eduki eta osasuntsu hazteko.

Berrientzako gomendiorik ba al duzu?

Orain arte bezala sofbolekoekin eta Ketakoekin harreman onak izateko. Nik eskatu izan dut denek jokatzeko, aldaketak eginez, ez beti irabazi behar dugu pentsatuz; denboraldia 20 lagunek hasiz gero, gutxienez 18k bukatu zezatela, ez 12k jokatu eta gainontzekoek aspertuta taldea utzi. Helburu horiek mantendu ditugu eta jarraituko dutela uste dut. Bi zati daude zuzendaritzan: kudeaketa eta kirol arloa. Nik, orain arte, Jaime Coladoren laguntza izan dut kirol arloan futboleko jende asko ezagutzen duelako eta zuzendaritza berrian horretan arituko dela uste dut. Gogoz ikusten ditut eta horrek konfiantza eman dit; lasai noa.

Jarraituko al duzu partidak ikusten?

Bai, gustura etortzen naiz. Zuzendari izan naizenean etxeko ia partida guztiak ikusi ditut. Orain behar bada errazago huts egingo dudan arren, askotara etorriko naiz, nahiz eta beste plan batzuk egiteko erraztasun gehiago izan.

LABUR

Futbola

Kadete neskek mailaz igo dira

Denboraldiaren bukaeran irrist egin bazuten ere, azkenean beren helburua lortu dute Orioko Futbol Taldeko kadete neskek: mailaz igotzea. Joseba Manterola *Baxerrik* zuzendu du taldea, eta azken jardunaldian Lagun Onak talde azpeitiarrak ez irabaztea eta oriotarrek irabaztea behar zuten mailaz igotzeko. Etxean jokatu zuten Orioko taldeak eta 5-0 irabazi zuten. Partida bukatuta, Azpeititik albiste ona iritsi zen, han berdindu egin baitzuten Lagun Onakek eta Lazkaok. Gauzak horrela, datorren urtean Oho-rezko Mailan arituko dira Orioko Futbol Taldeko kadete neskek. Taldea osatzeko nahian, bilera jarri dute ekainaren 8an, larunbatarekin, goizeko 12:00etan, Mendibeltz zelaietan, Orio, Aia eta inguruko neskentzat, adin mugarik gabe.

Sofbola

20. urteurreneko txapelketa

Aurten 20 urte betetzen ditu Orioko Bate Bizkorrek taldeak. Hori dela eta txapelketa bat antolatzen ari dira datozen sanpedroetan jokatzeko. Bertan jokalaririk ohiek jokatzeko nahia azaldu dute OBBko arduradunek, eta, horretarako, ostiralero elkartuko dira, arratsaldeko 18:00etan, Mendibeltzen. Bestetik azken bi jardunaldietan emaitza txarrak izan ditu OBBko lehen taldeak. Antorcha talde Valentziarraren aurkako bi partidak galdu zituzten etxean eta sailkapenean berdinduta joan ziren Sant Boira -Bartzelona-. Han ere bi partidak galdu eta sailkapenean lehen postua kataluniarraren mesedetan galdu zuten oriotarrek. Hortaz, ez dute liga erregularra irabazterik lortu.

Saskibaloia

Lan ona Espainiako Txapelketan

Guadalajaran izan da ZASTen kadete nesken lehenengo taldea Espainiako Txapelketa jokatzeko maiztaren 26tik 29ra. Taldean hiru oriotar izan dira taldean: Teresa Argibe, Sara Iparragirre eta Nora Rodriguez. Lehenengo partida galdu egin zuten Ponce Valladolideko taldearen aurka. Baina multzoko beste bi norgehiagokak irabaztea lortu zuten Logroñoeko Clavijo eta Iruñeko Lagunak kontra. Final zortzirenetan, berriz, Rivas-finaleraino iritsi zen- izan zuten aurkari. Ezin izan zuten kanporaketa irabazi baina txapelketa ona eginda itzuli dira etxera ZASTeko neskek.

■ Aiako berri

Erlojuaren aurkako bizikleta lasterketa ekainaren 21ean

Jubenilek egiten duten Gipuzkoako itzuliko lehendabiziko etapa izango da Aian. Ibilbide gorabeheratsua izango dute. 2011n izan zutenaren antzekoa: kalbariotan hasi eta plazan bukatu

Iaz Gipuzkoako 18. Klasika hartu zuten Aiako errepideek eta herriguneak. Aurtun, berriz, duelabi urte bezala, Gipuzkoako Itzuliari hasiera emango zaio gurean. Ekainaren 21ean izango da proba, ostiralarekin, arratsaldeko 18:30ean hasita. Lehenengo lehenengotik azkenekoraino, banan-bana irtengo dira txirrindulariak, 30 segundoro.

Probak trafikoan aldaketak eragingo ditu herrian. Horrela, Arginmuñotik hasita herrigunea erabat itxita egongo da arratsaldeko 17:30etik 20:30ak bitartean. Armendi-Gainetik Andazarrate aldera edo Zarautza joan nahi dutenentzat ez da arazorik izango. Udalak herritarrei eskatzen die, herri barrura sartu edota atera nahi izanez gero ordutegia errespetatzeko; edo, bestela, herriko sarreran uzteko kotxea. Horrez gainera, herriguneko aparkaleku nagusia ere ez da erabilgarri izango 15:00etatik aurrera, eta, ondorioz ezingo da autorik utzi bertan.

ZENBAKIA

2.530

Metro. Hori da txirrindulariek egin beharreko distantzia. Kalbariotan hasi, Arginmuñorarte joan, buelta hartu eta Lardizabal eskolara. Handik eskuineko bidea hartu eta Armendi-Gain ingurura joango dira; bertatik Benta Berriraino jaitsi eta plazan bukatzen.



Txirrindulari probek jendea erakartzen dute errepide bazterrera Aian ere. KARKARA

Erromeria zaleen eguna izango da ekainaren 9an Aristerrazuko plazan

Herri bazkaria, omenaldia eta erromeria izango dira jaiaren osagaiak. Trikiti doinuak gustuko dituztenentzat 21 bikote eta talde izango dira Aristerrazuko eszenatokian musika jotzen



Astero jende asko gerturatzen da Aristerrazura hankak astintzera. KARKARA

Ekainaren 9an, erromerien ohiturari jarraituz igandearekin, festa berezia antolatuta du Andatzako Erromeria Elkarteak. Egingo duten festa berezian erromeria zaleak omenduko dituzte eta horretarako egun guztiko programa osatu dute.

Eguerdirako jarri dute hitzordua Andatza auzoan bertan, Aristerrazuko plazan, 12:00ak eta 12:30ak bitartean.

Elkartu eta 14:00ak aldera bazkari herrikoia egingo dute Andatzako pilotalekuan. Dagoeneko ez dago txartelik salgai; izan ere horretarako azken eguna ekainaren 4a izan zen. Bazkalondoan, 17:00etan erromeria zaleen omeneko ekitaldia egingo dute frontoian bertan.

Bukatzeko, erromeria erraldoia egingo dute ekitaldiaren atzetik.

Erromeria erraldoia

Guztira 21 bikote eta taldek joko dituzte trikiti doinuak Aristerrazun. Tartean izango dira Tapia eta Leturia, Imuntzo eta Beloki, Elizagoien ahizpak, Izer eta Alabier, Elustondo anai-arrebak, Kupela Taldea eta Bide Batez taldea.

LABUR

Kirola

Gipuzkoako giza proba txapelketa

Datorren ekainaren 9an, igandearekin, Gipuzkoako taldekako giza proba txapelketako lehenengo kanporaketa jokatu da probalekuan. Gipuzkoako Herri Kirol Elkarteak antolatu du proba Aiako Idi Probak Elkartearen laguntzarekin. Arratsaldeko 18:00etan hasiko da dema eta 20 minutuko txandak egingo dituzte 950 kiloko harriari tiraka. Aitzondo, Zizurkil eta Urretxu izango dira nor baino nor.

17. Zarautz-Aia herri krosa

Aiako kirol elkarteak antolatuta, ekainaren 9an jokatu da Zarautz-Aia herri krosa. 11:30ean Zarauzko San Frantzisko kalearen eta Kale Nagusiaren artean abiatuta 11,315 kilometro ditu ibilbideak Aiako plazara iritsi arte. Aldez aurretik izena eman daiteke herrikrossa.com orrialdean 4 euro ordainduta edo, bestela, egunean bertan, irteera tokian 10 euro ordainduta. Goizeko 11:30ean Aian bertan kros txikia egingo dute eta parte hartu nahi dutenek egunean bertan eman beharko dute izena. Probako errekorra Martin Fizena da: 36 minutu eta 30 segundo.

Trafikoa

Bidea moztuta triatloia dela-eta

Datorren larunbatean, ekainaren 8an, errepide moztetak izango dira Zarauzko triatloia dela-eta. Horren aurrean, proposatutako saihezbideak erabiltzea eskatzen dute antolatzaileek. Zarauttik Oriora joateko: A-8 autopistatik -Aritzetako gunean norabide aldaketa eginez-. Aiatik Oriora edo Zarautzera joateko: GI-2631 errepidetik Orioko gainera -Laurgaindik barrena-. Bukatzeko, Andatzatik edo Santiotik Oriora edo Zarautz joateko Aia-ira igo eta hortik Orioko gainera jaitsi. Lokatetik barrena ere joan ahal izango da.

Katu Noria
GIBUZKOAKO ERROMERIA

ESTROPALARI, 10
20510 ORRIO
TEL. 943 11 66 99

LOTTIDAGOK
608 67 64 35

HAUR ETA HELDUENTZAKO JANTZIAK

ROSA

GARBIÑE ARRILLAGA
ARIZAGA BALEA, 3 - TEL. 943 13 19 43

10% BESKONTUA FAMILIA UGAJENTZAT

Bidall ezazu zure albistea!

ZUZENEAN!!!

karkara.com

Kapitalismoak ez du bihotzik

Maiatzaren 28an dilin-dilin telefonoak, nor izango eta Eli kultur etxetik: *KARKARA-ren hurrengo alerako Aiako leihoa atala betetzea zuri dagokizu*. Bueno, bueno, Eliren eskaria agindu da niretzat.

Zertaz idatzi buruari bueltaka nenbilela, maiatzak 30 greba eguna, konputagailuaren aurrean jarri eta ... belarria irratian; grebaren jarraipenari buruzko datuak, sindikatuen arabera: langileen % 40 inguruak egin du greba; Eusko Jaurlaritzaren arabera % 20 eskasak; Confebasketik Bizkaia eta Araban % 10etik beherakoa izan dela. Non dago egia? Gezurra eta datuen manipulazioa paisaiaren parte bezala onartzen ditugu.

Dena den, norbaitek esan bezala, normala da aurreko greban baina lanuzte txikiagoa izatea, langabezian jende gehiago dagoen heinean, greba egingo duen langile gutxiago dago-eta; matematikak ez du hutsik egiten. Martxa honetan aurki ez da grebarik egingo langile gehienak langabezian egongo direlako.

KARKARAren aurreko zenbakian idatzi dutenez 95 langabe daude Aian. Uaaaa! Herri txiki honetarako asko dirudi!

Zer gertatzen ari zaigu? Zergatik esaten digute greba egiteak ez duela ezertarako balio? Zergatik lau urte eskasean

Zergatik esaten digute greba egiteak ez duela ezertarako balio?

pikutara doaz azken bi gizalditan pixkana irabazitako langilearen eskubideak? Langileek inoiz borrokarik egin izan ez balute lortuko al ziren eskubide horiek?

General electriceko zuzendari exekutiboak oso garbi adierazi du: *Lehiakorrak izan nahi badugu limoiei zuku guttia atera behar zaie*. Baina bera ez dago zukua atera beharreko limoien artean!

Nola lortu ziren langileriaren lorpen sozial gehienak? *Por el bien del imperio* liburuaren egile Josep Fontana historia-lariak dioenez, *klase dominatzailea herriaren nahigabe orokor batek ezarritako sistema arriskuan jarri zezakeen iraultza baten beldur zelako*. Egun bankariek beldurra galdu diote iraultza baten meatuari eta beren taldearen aberastea sustatu dute pobrezia globala eraginez.



Txokoak eta jendea
Lehen jaunartzea eta
komunio handia

Goitik hasita: Maddi Alkain, Imanol Arruti, Aimar Aramberri, Manes Albeniz, Ibai Arruti, Itziar Zabala, Ane Arruti eta Joanes Zendoia. Behean: Mikel Lertxundi, Ainara Uzkudun, Uxue Izeta, Idoia Fernandez, June Azpiroz, Olaia, Julen eta Ainitze Iruretagoiena, Eider Gorriti, Josu Urruzola eta Joane Aiertza.

BORDELEKO ARDOAREN AZOKA EGIN ZENEKOA



Orio eta Saint Ciersen arteko senidetza aprobetxatuz, Bordeleko ardoaren azokaren bi edizio antolatu zituen Udalak gurean: 2002an –ekainaren leian eta 2an– izan zen aurrenekoa; 2003an –maiatzaren 31n eta ekainaren leian– bigarrena eta azkena.

Blaye bailarako 17 bodegazale izan ziren estreinako azokan; ardo beltza eta zuria edan zituzten bertaratuek orduan. Arrakastatsua izan zen eta lehen eguna bukatzerako apenas geratu zitzaizen generorik.

Apalxeagoa izan zen bigarren azoka. Bordeleko 20 ardogile etorri baziren ere, jende gutxiago hurbildu zen azokara eta mila edalontzi inguru saldu ziren –1.300 bat izan ziren aurrekoan–. Iñaki Perurena, Martin Berasategi, Jose Luis Astiazaran eta Mirari Arruabarrena izendatu zituzten ardoaren kofradia-kide berri.

[ARGAZKIA ETA INFORMAZIOA: ARTXIBOA]

karkara

Txoko honetan erakusteko moduko argazki zaharren bat baldin badaukazu, ekarri KARKARARA eta gustu handiz argitaratuko dugu, zuk ekarritakoa dela jarrita.

BERME Aholkularitza S.L.
Zerga eta lege aholkularitza

- ENHABILATZEAN ARIKATZEN
- ENHABILATZE PIRATA
- ENHABILATZE JUDIZIALA
- LEGI-IRAZKETA ENHABILATZE
- FISKAL ARIKATZEAK
- ALEAKI ENHABILATZE ENHABILATZE

Julio Mendizabal Elorri
c/ 402 43 05 25

Bar Soñu 10 Bgo
40123 Soñu (Bizkaia)
E-48940 BILBO

b

Carmen eta Txomin
ARRANDEGIAR

943 83 05 37 / 943 83 27 47

Gabon
TABERNA

plater kombinatuak eta pintxoak

Tfnoa: 943 83 06 09

HAIZE BERRI
idoma-jateko-herriak

Plater kombinatuak,
bakatak,
hamburgerak,
ruzoak,
eguneko menua...

eta etxera eramateko zerbitzua!

Drako Erakundeak, Erakunde 1 - 48943 01 74 02 - Arrieta gurean jarri



“Niretzat kantua beti izan da dirua baino hobea”

Manuel Urkizu

Herri-kantaria

Oriotar askok entzun du Manuel Urkizu **herriko ekitaldietan kantari**. Garai batean arotzerian abestutako kantuak gogoan, ahotsa zizelkatu eta doinuz jantzi ditu urte luzeetan areto, jatetxe, kale... Oinak dantzari ere ibili zituen garai batean eta mingaina dantzan jarri du herritarrei bere kontuen berri emanez.

TESTUA: I. AGIRREAZALDEGI
ARGAZKIAK: KARKARA ETA URKIZU-
LERTXUNDI FAMILIA

Kantari hartu gaitu Manuelek Goiko Kalen, berak egindako altzariz apaindutako egongelan. Kantuan emandako orduak laburtzea ez da erraza, baina abesti eta aho soinuarekin jotako kantuen artean kontatu dizkigu bere gorabeherak.

Urte askoan ibili zara kantuan. Nolatan hasizinen?

Txikitatik abestu izan dut; berezkoa dudala esango nuke. Etxean ere beti izan da kanturako zaletasuna eta guri hala transmititu ziguten. Debozioak eta nire emozioak eraman nau kantura ni.

Kulturak eta kantuak bizimodua ez baina bizia ematen digu. Ez genuen dirurik irabazten, baina horrelaxe bizi gi-

nen. Niretzat kantua beti izan da dirua baino hobea.

Edozein unetan irratia entzutearekin batera kantuan aritzen naiz, esaterako, Luis Marianoren *Ezin ahaztu* kantua. Etxean, irratitik entzunda ez bazen, norbait kantuan hasiz gero besteok jarraitu egiten genion. Seme-alabei ere beti esaten nien kantuari edo musikari lotutako zerbait ikasi behar zutela.

Nola ikasi duzu musika?

Musika ikasketa berezirik ez dut egin. Baina, Patxi *Danbolin*ekin notak irakurtzen-eta ikasia naiz, solfeo pixka bat laguntzeko. Berez belarrik ikasi dut, entzun ahala gogoan hartu eta gero nik abestuz edo tresnarekin joz.

Nik ez dut esango musikan fenomeno izan naizenik. Zaletasuna beti izan dut eta besteekin batera genekiena irakasten ahalegindu ginen.

Etxean jaso eta gero herriko beste hainbat txokotan abestu izan duzu. Non?

Elizan askotan aritu izan naiz. Umetan, Azurza organo jotzailea zela, eta gerora ere bai, meza nagusietan.

Hileta elizkizunetan, berriz, bi edo hiru lagun izaten ginen, eta jai arratsaldean, gu bazkaritan kanpoan baginen, etorri egin behar izaten genuen elizan abestera. Batzuetan bakarrik kantatzea ere tokatzen zitzaigun. Baina gutxi ginen, besteek ez zuten-eta ikasten.

Elizan soloak egiten nituen. Benito Lertxundi gaztea zen eta zaletasuna bazuenez esaten nion nirekin ikasteko, gero txanda hartzeko. Igandetako meza-tara Imanol semea ere etorri izan zen nirekin kantura triplea zenean.

Parrokiako abesbatzan beti kantatu izan dut; meza nagusian orain dela 10 urtera arte-edo, eta gerora ere joan izan naiz noiz edo noiz.

Eliza, ordea, ez da izan kanturako zure leku bakarra.

Ez, lagun artean ere abesten genuen tabernetan. Ahots batean baino gehiagotan ibiltzen ginen kantuan. Gabonetan ere gizonok elkartzen ginen kanturako: otxotekoak, herriko gazteak... Antzokietan ere kontzertuak egiten genituen eta otxotearekin lehiaketetara ere joaten ginen. Guretzat operara joatea bezalako zen, nahiz eta koadrilako lagunak izan, kantu zaleak izan baikara beti.

Lantokian sartu orduko hasten nintzen abesten. Soroan ere, lanean ari ginelan kantatu egiten genuen. Amak esaten zigun: *hau ez da soroa hau baratzea da, zoroak gu gara hona lanera etortzeko*. Baina han lan egin gabe ez zegoen ezer.

Ezkontzetan ere abesten zenuen.

Bai, eskatu egiten ziguten. Orduan, jende gutxi ibiltzen zen gu bezala, kantari eta ibiltzen zenari esan behar. Emaztearekin abesten nuen. Ezkontzetan gustura aritzen nintzen berarekin, oso belarri eta ahots onak zituen. Bikoteentzako 60. hamarkadako euskal kantuak moldatzen genituen eta elkarrekin abestu.

Eta bestelako ekitaldietan?

Gogoan dut arraunlarien bazkari bat gironotzera joan nintzela Goierrira eta Lazkao Txikirekin bertsoetan egin nuela, bertsolaria izan ez arren. Nik arraunla-

“Nik ez dut esango musikan fenomeno izan naizenik, zaletasuna beti izan dut eta besteekin batera genekiena irakasten ahalegindu ginen”

“Antzokietan ere kontzertuak egiten genituen eta otxotearekin lehiaketetara ere joaten ginen.

Guretzat operara joatea bezalako zen, nahiz eta koadrilako lagunak izan, kantu zaleak izan baikara beti”

“Ezkontzetan emaztearekin gustura aritzen nintzen. Oso belarri eta ahots onak zituen.

Bikoteentzako 60. hamarkadako euskal kantuak moldatzen genituen eta elkarrekin abestu.”

“Abesti euskadunak kantatzen saiatu izan naiz beti, baina beste batzuen hitzak nire erara euskaratuta ere edo hitzak nik neuk asmatuta”

“Peronak esan zidan behin: zu gaztetatik hasi izan bazina *super* izango zinateke, inon ikasi gabe berez jotzen nituelako abestiak, baina gozatu ere. Herrian jotzeko nahikoa”

“Musikarako zaletasuna eta kantatzeko gogoia transmititu diet seme-alabei eta haiek altxor hori jaso dute”

rientzako propio eginak ziren kantuak abestu nituen buruz eta Lazkao Txikik haiei erantzun. Egunkarian ere eman zuten horren berri.

Nolako abestiak dituzu gustuko?

Kantu melodiko sentimentalak gustatzen zaizkit. Abesti euskaldunak kantatzen saiatu izan naiz beti, baina beste batzuen hitzak nire erara euskaratuta ere edo hitzak nik neuk asmatuta. Kantatzeko guretzat euskaraz errazagoa zen, baina herritarrentzat ere entzuteko.

Erritmo gehiagokoak ere kantatu ditut. Adibidez, seme-alaba Imanol eta Mirenekin grabatu nuen 1970 urte inguruan *Kuba, ze polita Kuba, hango neskatilak politikak dira...* entzun eta euskarara itzuli nuen nik. Gerora erromerietan entzun izan dira kantu horren bertsoiak.

Ahal izan badut beti euskaraz kantatu dut, baina ezkontzetan edo beste ospakizun batzuetan ere aritzen ginenez gaztelaniaz jakitea ere komeni zitzaigun.

Kantuak dantza izaten du lagun eta zu dantzan ere ibilitakoa zara, ezta?

Bai, hala da, baina dantza soltean sariak jasotakoa ere. Herrian izaten zen txapelketa eta nik emaztearekin egiten nuen dantza. Baina ezpata dantzan ere aritu nintzen jendaurrean. Dantzan egin ez ezik gainontzekoei irakatsi ere egiten nien Luistarren dantza taldean. Dantzan ez zekienak pixka bat zekienarekin ibili behar izaten zuen-eta ikasteko.

Txistua jotzen al zenuen?

Ibilitakoa naiz bai. Luistarretan dantzariak ateratzeko txistulariak eskatu genituen. Izan ere, orduan txistulari zenak ez zuen entseguetara joan nahi izaten; beraz, guk kantatu eta guk dantza; biak egiten genituen. Hori konpontzeko, txistua joko zuenik aurkitu bai, baina orduan txistuak falta ziren. Arinenean egiten nuen orduan lan eta han aritzen zen Alberto Agirrerri esan nion txistuak egiteko egurra behar genuela. Arinenetik egurra hartu, paketeak egin eta Erriotik barrena Tolosara joan ginen egurra eramatera han txistuak egiteko. Bestalde, etxean eta lagun eta ezagunen artean zilarrezko txanponak, bitxiak... bildu genituen, haiek urtu eta txistuentzako eraztunak egiteko.

Eta danbor eta danbolinak?

Orduan falangistak ibiltzen ziren eta gu meza nagusira ia igandero joanda Espainiako himnoa abestu behar izaten genuen. Haiek desfileetan jotzen zuten danborra eta gero musika bandaren lokalean gordetzen zituzten. Guk danborrak egiteko xentimorik ere ez genuen eta buruari eragiten hasita konturatu ginen haienak erabili genitzakeela. Beraz, haien danborrei larrua kendu eta egin genituen danbolinak.



A ZER GIZONA OILUANENKO GIZON ARGIAU

Umetatik ezagutzen dut Manuel Gurasoen laguna zen eta txikia nintzenetik izan dut harekin harremana. Polita benetan. Berezia ere esango nuke. Maitasunez bete. Bai. Hori guztia esanda ezin dut ez, ezer txarrik idatzi gizon honi buruz. Alde batetik, miresmena diodalako eta bestetik gizon handia iruditzen zaidalako. Baina zergatik iruditzen zait Manuel Urkizu gizon handia?

Musika munduan hasi nintzen ia konturatu gabe. 1965an jaioa naiz eta garai haietan herri txiki bateko ume batek ez zituen aukera asko musika ikasteko. Belarriz ikasi nuen pianoa jotzen, garai haietan ohikoa zenez. Ondoren, Patxi Danbolinekin koroan kantatzen hasi nintzen zazpi urte nituela eta nire azken ikasle pausoak Londresen eman nituen 27 urte nituenean. Denboraldi horretan Europako goi mailako konserbatorioetan ibilia naiz pianoa jotzen ikasten eta eskola horietako ohitura asko ere hartu ditut. Batzuk onak eta beste batzuk bada... ez. Baina denbora asko behar izan dut ikasitakotik baztertu behar nuena zer zen konturatzeko. Manueli gehiago begiratu izan banio azkarrago ikasiko nukeen. Bai. Baina zer da ba hain garrantzitsua den kontu hori?

Umiltasuna. Apaltasuna.

Nire lanbidean, musika munduan, *divo* askorekin egin dut topo. Batzuk oso profesional onak zirenak eta beste

asko erdi mailakoak. Pertsona horiek eredutzat hartzen nituen ikasle nintzenen. A ze hanka sartzea! Baina tira, bizitza honetan beti ikasten da era batera edo bestera. Eredu txarra hartzen denean, ordea, sufritu ere sufritzen da. Nik egoera batzuetan beti sufritzen nuen eta ez nuen ulertzen zergatik. Urteak joan eta urteak etorri, pixkanaka, ikasten ari naiz beste jarrera batzuk eredu bezala hartzen eta kalte egiten didatenak baztertzeko.

Manuel Urkizu ere musikaria da. Ez profesionala, baina profesional asko baino hobeto ulertzen du zer nolako jarrerarekin azaldu behar dugun musikaren aurrean: umiltasunarekin, handikeriarik gabe, normaltasunarekin, hain zuzen ere. Nik ere, gaztetatik, jarra hori mantendu izan banu, gaur egun askoz hobeto biziko nintzateke eta gehiago disfrutatuko nuke musikaz.

Manuel ez da sekula *divo* bat izan. Bere bizitzan ere jarrera polit hori aurkeztu du eta aldamenekook asko ikasi dugu. Askoz gehiago ikasten da eruditik esanetik baino. Eskerrik asko, Manuel, zure jakinduria handiagatik. Kanpotik norbaiti agian erraza irudituko zaio zure jarrera izatea, baina lan konstante handiaren ondorio besterik ez da. A ze gizona!

Xabier Lizaso

Musikaria

Musika tresna bat baino gehiago jotakoazara.

Aho soinua –patrikatik osatutako diruz erosiak–, txistua, gitarra jotzen ere ikasi nuen eta doinuren bat edo beste ateratzeko pianoa. Txarangan bonbardinoa jotakoa ere banaiz. Turutekin ibiltzen ginen eta Karlos Peronak galdetu zidan ea joko nukeen. Sanpedroetarako astebete falta zela bonbardinoa ekarri eta hurrengo egunerako *Kuba* abestia jotzen nuen. Peronak esan zidan behin: zu gaztetatik hasi izan bazina *super* izango zinateke, inon ikasi gabe berez jotzen nituelako abestiak, baita gozatu ere. Herrian jotzeko nahikoa.

Etxekoek jarraitu diote zaletasunari?

Bai. Musikarako zaletasuna eta kantatzeko gogoia transmititu diet seme-alabei eta haiek altxor hori jaso egin dute. Seme batek txistua jotzen zuen eta beste hiru seme-alabak bultzatu nituen hare-

kin ikastera udara batean; baina lehen-dabiziko notak beti nirekin. Gero danbor jotzailea falta zela eta Imanol animatu nuen, aldamenen jarri eta oinarritzko erritmoak irakatsiz. Gitarrarekin ere berdin, lehen akordeak nik erakutsiak dira. Bidea irekitzen nien eta hortik aurrerakoa beren esku uzten. Baina horregatik daude orain musika giroan. Imanol panderoa jotzen eta kantuan, eta Blasek txistua jotzen du. Etxeko ospakizunak ere beti kantuan bukatzen ditugu.

Oraindik egiten al duzu kantuan?

Orioko abesbatza gehienetan ibilitakoa naiz eta Salatxo utzi egin behar izan nuen entseguak berandu zirelako. Egunsentia otxotean, berriz, jaietan eta abesten dugu. Mezatara joaten naizentan ere kantuan egiten dut. Eta etxean, beti kantari ingurukoekin. Bizi osoa kantuan aritu naiz niretzat, etxekoentzat eta herriarentzat.

Puruak

Post urterekin ikasi nuen gezurrak hanka motza zuela. Mika izaki, haragia gorroto nuen. Ahoan bola ikaragarri handia egiten zitzaidan xerra gogor haiek janarazten zizkidatenean. Eta bertan kabitzen ez zirenez, leku egokiagoa bilatzen nien. Etxeko armairu atzeetan. Ezkutuko erregaloak amak bilatu zituenean jakin nuen usteltze prozesuaren berri. Zapla!

Umetan zera pentsatzen nuen: 1,40 metrotik gorakoek dena txukun egiten zutela. Goizean goiz jaiki eta ohera sartu arteko jardun osoa ondo egiten zutela. Hortik beherakook, berriz, guztia aldrebes egiten genuen. Gauzak zegokien lekuan jaso ez, platerekoa bukatu ez, zapuzaldia harrapatu eta hau edo hura lurre-ra bota, zazpigarren jertsea palotetan galdu... Egunero izaten nuen zaplazteko ederra jasotzeko abilidadea. Pentsatu ere pentsatzen nuen hazi ahala zuzenduko nuela nire okerbide hura. Automatikoa zela pausoa. Egundo goiko horiek

bezala dena zuzen eta zintzo egingo nuen garaia iritsiko zen!

Ez zuten pazientzia makala izan ingurukoek. Ingeleseko *trial & error* batean bezala lortu zuten ni arrastoan sartzea. *Jo ta ke irabazi arte*.

Baina jan nituen haragi satellite haiek eta iritsi 1,51 metro pasatxora. Eta orduan zer? Orduan, kaka zaharra. Heldu plantako guztiak alfer hutsak zirela konturatzeko bakarrik balio izan zuen nire sakrifizioak. Eta ez alferrak bakarrik, gezurtiak ere bai. Hau jendilajea zegoena espaloiaen beste alde hartan. Denetariko abanikoa topatu dut urteotan: erdipurdiko alferrak, alfer argi

Alfer eskasek ez dute beren burua alfertzat. Gezurra esan baino, gezurra sinetsi nahi izaten dute

askoak, gezurti finak eta alfertasuna ez-kutatzerik ez dutenak. Zintzotasuna ez, horrelakorik ia ez dut aurkitu.

Lagunartean alferkeria erraz toreatzen da. Adibidez, soziedadean sukaldera sartzeko imintziorik egiten ez duen lagunak ez nau horrenbeste pipertzen, nahiz eta izerditan blai dagoen sukaldariari zerbeza bat irekitzea detaile polita baden.

Lanean ez. Lanean alferrontzi eskasik ez dut nahi aldean. Beren eskaskeria agerian ez gelditzearren lanean fin-fin jarduten dugunon aurka ibiltzen baitira. Alfer eskas horiek ez dute beren burua alfertzat. Gezurra esan baino, gezurra sinetsi nahi izaten dute. Alfer azkarrak, berriz, badaki alderantzizko jolasa jarri behar duela martxan langilea dena lanean jarrai dezan aupatu. Horrela bestea lanean gustura, eta bera alferkeriaren lohietan gozo-gozo.

Alferrak, alfer purua behar baitu, bestela akabogureak.

ARISTERRAZU
jatebxea

Andatza auzoa AIA
Tel. 943 83 45 21

zkue

Tf: 943 13 04 38

ARKAITZ
Taberna

Pintxoak,
plater konbinatuak
eta ogilarteko mundialak

ABELARI KALEA, 4 TEL: 943 83 16 57

uranga
autozerbitzua

Aliprox

Eusko Gudariak 13-15
ORIO
943 83 38 75

Kinkladenda- Ume arropa

argine

www.lasonet.com/argine
Tel. 943 13 48 89

25eko DESKONTUA FAMILIA
UGARJEN TXARTELAREKIN

AIRDATZA modas

Eusko Gudariak, 7 • Tel./Fax: 943 83 10 88 • 20810 ORIO

elkaritegia

ANTILLA
jatebidea

Abelari Kalea, 2 - Tel. 943 83 29 00

Alustiza Autobusak
Alustiza Bidaia S.L.

Autobus litera eta
16, 19, 25 eta 56 plazakoak.
Bidaia eta ezkontzetara edo sagardotegira joateko.

Tel. 943 13 28 93/83 08 80. Mugikorra: 656 78 30 01. 656 78 29 99

Legeak, arauak eta errespetua

Azkenaldian elkarbizitzaz hitz egiten ari gara han eta hemen, zoru etikoaz eta abarrez. Niri grazia puntu bat ere egiten dit kontuak, badirudi politikak bakarrik eragin duela gure arteko harremanetan. Horrela balitz konponbidea ez litzateke aparteko zailtasuneko izango. Baina zaila da elkarbizitza, egunerokotasunik apalenetik hasita.

Bizikletan ibiltzen naiz, eta garbi diot errepideak elkarbanatzen ditugunon artean bizikidetzaren normal xamarra egitea ez dela erraza izaten. Gure momentuko egoerak badu eragina errepidera ateratzen garen aldiro. Tentsioak hor lehertzen zaizkigu, den-denoi. Nire iritziz, hor dago elkarbizitza normal hori eragozten duen arrazoia: bolantean, manillarrean edo zapaten gainean, trafikoa tartean bada basapiztia bihurtzen garela.

Egunero entzun behar izaten dugu gidari eta gidari bakarrik direnen aldetik –oinezko ere badirela ahazten zaie–, txirrindulariek ez ditugula arauak errespetatzen. Esan gabe doa arau zibiko batzuk derrigor errespetatu behar direla, eta horretan nik ere gogor egiten dut errespetatzen ez dutenen aurka. Adibide bat jarriko dizuet: txirrindulari talde handi bat semaforo gorriara hurbildu, eta denak aurrera. Ba hori ez.

Orain, askotan nik uste legeak diona zuzen ez bete arren, arauak bai, horiek betetzen ditugula, arau zibikoak, errespetuzkoak. Beste adibide bat: semaforoa gorri, oinezkorik ez bidegurutzatzeko –edo oinezkoei lehentasuna eman diegu–, eta bidegurutzerik ez autorik iriteteko ere. Horietan abiadura gutxitu, ertzetara begiratu eta poliki-poliki aurrera. Legea bete dut? Ez. Errespetuz jokatu dut? Nire iritziz bai. Oinez semaforo gorri askorekin bezalaxe.

Gogoratu dezagun semaforoak zertarako sortu ziren: autoen ibilia erregulatzeko. Oinez, bizikletaz eta astoz genbiltzanean, gure abiadura motelak ez zuen semaforo premiarik sortu. Orain legeak autoen arabera egin dituzten honetan, beste gainontzekook ere haien legera sartu behar izan dugu, zentzuna hankaz gora jarritz.

Igarrita nago auto-kamioi-autobus gidariei barruak erretzen dizkiela hirigunera ailegatu, eta lehenago aurreratu duten txirrindulariak ertz batetik atzera berriz haiek aurreratzen ikusteak. Ez dakit kontziente diren txirrindulari batek geldi egotetik martxan jarri bitarte egin beharreko prozesuaz, eta atzeko autoarekiko tarte bat izatearen behar izanaz. Hutsetik abiatu, oina pedalean kateatu, azeleratu. Atzetik auto bat muxuka duzularik prozesu horrek bere lana du, zuzen joatea ere ez baita erraza izaten. Belgikan eta Herberetan, konparazio baterako, autoek geratu behar izaten duten lekuaren aurrean beti gordetzen dute hiru-bat metroko tartetxo bizikletentzat, lasaitasunez irten ahal izateko.

Tira, ba aurreratu dugu auto ilara eta jarri gara semaforoa baino pixka bat aurrerago, bidegurutzaren aurretikoan. Semaforoa berde jarri eta ez da ibilgailu bakarra izaten, mendekuz-edo, txirrindulariaren ondo-ondotik pasatzen dena. Aurretik bozina-hotsik eta hitz ederrik ere ez da falta izaten gehienetan. Txirrindulariek ere askotan horren aurrean hala-moduzko erantzuna, noski.

Patxadaz bizitzen ikasten dugun arte, lekutan daude gure zoruak eta gure etikak.

Putza

Ekainean sartu, eta espaloioak oraindik irris-takor. Giro da etxean eta gustuko blogen irakurketan, aspaldiko lagun baten oroitzapenak harritu nau.

Haurtzaroan, ez zen patuak ezkutatzeko zion usaintzera ere iritsi. Hura inozentzia!

Adinez nagusia izateko bueltan, inguruko ederrena zen. Birjina omen, zapaldu gabeko elurraren tankeran, bere epelarekin amesten zutenentzat.

Esan daiteke, nire adiskideak estriborretik hartu zuela ziaboga, olatu batek *kostadutik* jo eta ametsen tripulazioa zeharo trabestuta utziz.

Ordutik, hoteletako gela merkeak lantoki eta hankartea lanabes gajoak. Mingaina atera eta begiak itxi, urteetan... eta kotizatu gabe!

Nire lagun Antillarekin gogoratu naiz gaur, hondartzarekin, putarekin, lotsa gutxiarekin nahi zioten guztia egin eta pentsiorik gabe jubilatuta dutenean.

Itsasgorak aurpegia egunean bitan garbitzen ziola esan zidan azkeneko eta paso; paso egiten duela krisiaz eta gizakion aiene merkeez. Txanponen borrokan maindire artean nahikoa izorratu zutela eta dagoeneko, ez omen du guretzat desira onik.

Ez nuen *klinexa* ateratzea eta begiak lehortzea baino adio egiteko modu duinagoririk izan.

Legeak autoen arabera egin dituzten honetan, beste gainontzekook ere haien legera sartu behar izan dugu, zentzuna hankaz gora jarritz

azkue
karrozeria



Ubegun industrialdea, 7 20809 Aia-Orio
T/fax: 943 83 51 86 Carroceriasazkue@hotmail.com

bodegas ERRASTI, S. L.



Eskualderako banatzailea
Zudugarai, Getariako txakolina
Ilagares, ardo gorri nafarra
Bodegas Gailur: Señorío de Laurgain
Gailur eta Ardanegi,
Arabar Errioxako ardoak

Euzko Gudari, 46 ORIO • 943 83 03 86 / 83 59 52 • E-posta: bodegaserrasti@euskalnet.net

TANATORIO ZARAUZ
 EUROFUNERARIAS TALDEA
Fileto eta zerbitzu orokorrak

* Donostia eta probintziako ospitaleetan
 * Aldioko zerbitzua
 * Belatorio gelak
 * Koroioak, eskelak, tramitazioak...

Araba kalea, 35 Zarauz
 Tel: 943 89 48 37 / Fax: 943 89 48 41
 e-mail: harrespil@harrespil.net

URANGA
 burdindegia
 Opari, menaje eta erremintak
 fer.uranga@euskalnet.net
 Telefax: 943 8312 36 Euzko Gudari, 5

RAMIRO
 argazkiak
 www.fotoramiro.com
 fotoramiro@fotoramiro.com
 610 69 76 68
 943 83 10 48

tel/fax: 943 89 00 69
 Bichua kalea, 4. 20.800 ZARAUZ

URBIDE o.s.k.

ITURGINTZA, BEROGINTZA
 GASA BAINU ERAKUSKETA

ANORGA TXIBI S.L
 KRISTALDEGIA

-komertzial instalazioak -beira bikoitza
 -segurtasun beirak -dutxa-itxiturak eta irristailuak
 -ispiluak -barandak -kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45

EGIN EZAZU ZURE PUBLIZITATEA
KARKARA
 943 83 15 27 **ALDIZKARIAN**

Orioko Herri Ikastola
 Guraso Kooperatiba
 ABESLARI KALEA, 8
 TEL: 943 83 47 04
 FAX: 943 13 09 38
 orio@ikastola.net
 www.oriokoikastola.net

Igo zaitetz haize berrietara!

Galerria

943890416 -677149934
 galerriaorio@hotmail.com

Zaragueta Herri Eskola (orio)
 telefonoa: 943 89 40 52
 e-mail: 012137aa@hezkontza.net

24 orduko zerbitzua

IGLESIAS SARRAILAGILEAK
 WWW.IGLESIASERRA.JEROS.COM
 Javier Iglesias Fernández
 637 723 308
 iglesiaserrajerros@yahoo.es
ROBIO ORIO

INDO
 Garraio frigorifikoa
 NAZIONALA ETA NAZIOARTEKOA

Olaskoegia, 12 - Tel. 943 894 024 - Fax. 943 130 144 AIA-ORIO

GARMENDIA
 INMOBILIARIA - AHOLKULARITZA - ASEGURUAK

Ibai Ondo, 1
 Tel: 943 834 466 - Fax: 943 132 941

ITZIAR
 kirolak
 Tel. 943 83 31 03

ITSASADARRA, S. L.
 Jose Angel Iradi Udabe
 aseguru artekaria
 finka administratzailea
 gestoria
 enpresa berriak sortzeko diru laguntzen kudeaketa

Tel 943 89 40 29 Fax 943 83 54 98 itsasadara@itsasadara.com
 Ibai Ondo 4, behea. 20810 Orrio

4. orritik dator

kontrako sententzia bat etorri zaio Orioko Udalarari. Arrazoiak: garai bateko hirigintza-akatsak. Horri buruz hitz egin ordez, batzordetik alde egin zuen EAJ alderdiaren ordezkariak otsaileko hirigintza batzordean. Espediente horren informazioa ere nahi dugu. Batzordeetan ematen ez dutenez, komunikabideen bidez egin dezatela. ■ **Orioko Bildu**

Euskara ikastaroak udan

Uda iristear den honetan, Urola Kostako AEK-k hasiera mailako ikastaroa eta EGA ikastaroa eskainiko ditu. Lehenengoak euskararekin lehen hartu-emanaz izatea ahalbidetzeaz gain, eguneroko elkarrizketak ulertzeko aukera eskainiko dizu, eta eskolak Zarauzko AEK euskaltegian izango dira. Bigarrenak, aldiz, EGA edo 3. mailako ziurtagiria eskuratzeko baliabideak erakutsiko dizkizu eta Zumaiaiko AEK-n izango da.

Ikastaroak 100 ordukoak izango dira, bi zatitan banatuta: uztailearen 1etik 30era eta irailaren 2tik 20ra. Eskolak goizez izango dira eta hiru orduko iraupena izango dute, 09:30-12:30. Ikasleek Udalararen diru laguntzak jasotzeko aukera izango dute. Izena emateko epea ekainaren 21ean amaituko da.

Horrez gain, AEK-k abian jarri du aurrematrikulazio kanpaina eta 2013-2014 ikasturterako matrikula ekainean egiten dutenek, hainbat abantaila izango dituzte:

- %5eko deskontua 13-14 ikasturteko matrikularen prezioan.
- Ordainketa malguagoa. Hau da, hiru

epetan ordaintzeko aukera.

Irailean ikastaroa ez egitea erabakiz gero, ekainean ordaindutakoaren %100 itzuliko da, 2013ko irailaren 27a baino lehen jakinaraziz gero. Aurrematrikulazio epea ekainaren 21era arte egongo da zabalik.

Beraz, badituzu euskara ikasteko aukera eta abantailak. Utzi aitzakiak alde batera eta eman izena! Informazio gehiagorako eta izena eman edo aurrematrikulatzeko zatoz AEKra - Zarautzen, Araba kalea 13-2 eta Zumaian, Bidasoa kalea 1- deitu 943 130 175 telefonora edo idatzi zarautz@aek.org helbidera. ■ **Armaia Zaldua.** AEK

Arrauna=etorkizuna?

Norbaitek idatzi honen azpian nire izena irakurtzen badu, pentsatuko du: *Badator hau berriro ere arraun pistaz hitz egitera.* Egia esan, eta kirol zentro berriaren inaugurazioan esan nuen bezala, berdin pentsatzen jarraitzen badut ere - hau da, ez kainaberek, ez igelek eta ez txoriek ez dituztela ekarriko Orio eta inguruko herrietara *pistak* ekar ditzaketen aberastasunak, bai kirol arloan, bai eta ekonomikoan ere - gaurko honetan nire nahia ideia bat azpimarratzea da: Orioko *poligono industrial* naturala eta ia bakarra ibaia dela eta *poligono* horretan kokatzen diren kirol instalazioak *industria* indartsu posible bat izan daitezkeela.

Horretarako ideien lehiaketa bat martxan jartzea eskatuko nioke Orioko Udalarari, aurkezteko baldintza bakarrekin: proiektua aurkezten duenak adierazi dezala nork eta nola kudeatu.

Jendea animatzeko esan, norberaren ogibide bilaka daitekeela proiektu hori, eta gainera, nork ez du nahi benetan gus-tuko duen zer baitetan lanean jarduteko? Galdera irakurri eta erantzunaren bila hasi zaretzen horientzako guztientzako, sakondu gabeko ideia batzuk formulatuko ditut jarraian:

- Ontzien parkea egokitu, horietako batzuk alokatzeko prestatuz eta berriak ekarriz, hainbat zerbitzu emateko modukoak ekarriz.

- Arraunaren museo bat eraiki, batez ere medio ikus-entzunezkoak erabiliz - arraunaren inguruko argazkiekin bakarrik zer bait zoragarria egin daiteke-.

- Bezero berriak bilatu: eskolak - egitarau bereziak prestatu eta Euskal Herriko eskola guztietara zabaldur-, kongresuak - gero eta gehiago egiten diren kongresuetarako gelak eta zerbitzu bereziak eskaini-.

- Lehia berriak eta herrikoak prestatu; adibidez, Orio ibaiaren jaitsiera piraguan Ormaiztegitik Orioraino. Ikusgarria izan daiteke, berehala klasiko bihurtzeko modukoa.

- Eliteko arrauna. Horren inguruan azterketa serioak eginda daude; beraz, aipatu besterik ez.

Ikusten duzuen bezala, burua martxan jarri eta ideia asko irteten dira ahotik. Ni neu gazteagoa banintz aurkeztuko nintzake proiekturen batekin, baina ... gaur nire kideekin, zaharrekin, nabil Euskal Gobernu eta Diputazioekin dozena eta erditik gora ditugun proiektu kudeatu nahian.

Ea guztion artean izenburuari ?ikurra kentzen diogun eta esaldiak behar duen itxura berreskuratzen duen: Arrauna = Etorkizuna. ■ **Antonio Campos**

 karkara Karkara aldizkariak	 Eta Arkupe elkarteak
 Karkarako laguntzaileentzat	 saria dute
 30 €	 Arkupeko dendetan gastatzeko

Maiatzeko sarituak:

Juanita Irure Catarain
(Haitz-Beron)

Rosa M. Lazkano Larrañaga
(Aizperro nekazalturismoan)

Egin barre euskaraz eta tabernatik kanpo, gainera

Kritika Bakarrizketak

Barry Barrez eta Jon Plazaola.
Umorezko bakarrizketak. 2013ko maiatzaren 31n, Orioko Kultur Etxean.

Azken urte hauetan asko hedatu da bakarrizketen jarduna. Baina, tamalez gehienak erdaraz izan ohi dira eta eskertzen da Jon Plazaolak eta Barry O'Brianek jendea euskaraz barrez jarri izana.

Formula erraza dirudi, lehenengo pertsonan, denoi ezagunak egiten zaizkigun gertakariak modu esajeratu batean kontatzeak, baina umorea ez da zientzia. Izan ere, denak gara ama desberdinen seme-alabak eta aldarreak ere desberdinak dira entzulearengan; hala komentatu da, gainera.

Lekua ere ez zen izan horrelako saioentzako ohikoa; izan ere, badirudi tabernako generoa dela bakarrizketa eta ez duela kultur etxeren batean erakusteko izateko mailarik. Horrenbestez, zorionak antolatzaileei.

Plazaola ezaguna nuen lehendik ere, bai bakarrizketetan aritzeagatik eta baita telebistatik ere; bai aktore eta bai gidoilari modura. Ez zuen hutsik egin; bera saioak gorantz egin zuen denok kanpin hartako kide sentitu ginen arte.

Barry O'Brian, Barry Barrez, irlandarra eta euskaldu-



Barry O'Brian, Barry Barrez, bakarrizketan, entzulez inguratuta. KARKARA

na. Euskaldun orori gertatutakoak bereak bailitzan kontatu zituen, seguruenik berrari ere gertatu zaizkiolako halakoak *Euskadi jator, goxo eta puta hontan*.

Larrosaren arantza erakuste aldera, nire ustetan erritmoa moztzen zuen bere abesti eta soinu *jotze* nahi horrek, baina bihotzez eskeretzeko da *kanpotar* batek eus-

kararekiko duen errespetua eta maitasuna, *bertako* batzuk inoiz izan ez eta inoiz izango ez dutenean.

Besteei barre eginaraztea ez da txantxa; ez horixe. Plazaolak eta Barry Barrezek lortu zuten. Zorionak eta eskerrik asko!

[AITOR ARREGI]

Ikasleak idazle
Jaione Illarramendi

Txakur kakak

Hartu garen bezala, txakur kakak dira herriko baldosak apaintzen dituztenak azken aldian. Arrautzak zapaltzen joango bagina bezalaxe joaten gara kaletik. Askotan, lurrera begiratu ezean, deskuidatu eta oparia etxera. Neguan, nahiz eta kakak ez diren inorentzat ongarrri, ez du horrenbeste kaltetzen, katiuskak, botak... daramatzagulako;



baina udara aldean, izugarriko kaltea da txankletekin zoazela kaka zapaltzea.

Nik ere txakurra badaukat, eta horrelako animalia bat dugunean, ardura hartu beharra daukagu; hau da, ondorio guztiak onartu behar ditugu: txakurra gurea bada, bere kaka ere bai. Beraz, jendeak nortasun pixka bat badu, eskatuko nuke denek beren txakurren hondakinak jasotzea, bai berentzako, eta bai besteentzako onura baita.

Ondorio guztiak onartu behar dituzu: txakurra zeurea bada, bere kaka ere bai

Joana Murgiondo
Aseguru-agenikoa

ASEGURUAUAK

ABESLARI, 4-2. esk.
Tfnoa: 943 13 46 07

KAIUA

Plater konbinatuak,
bokatak, kanbargesak...

ARRABAKO PORTUA 25, BEHEA TE: 943 040 000

PIZZERIA

KALETA

ARRANTZALE NALEA, 10
TELEFONOA: 943 24 89 46

» INKESTA

Krisi garaian, borondatez egindako lana indartu beharra al dago?

36 erantzun jaso ditu galderak. **%77** alde agertu da, **%19** kontra eta **%2k** ez daki zer esan gaiaren aurrean.

**HURRENGO GALDERA****Irudikatzen al duzue KARKARARik gabeko Aia edo Orio?**

Erantzun ezazu www.karkara.com webgunean eta emailtza 340. KARKARAN argitaratuko dugu.

» OSPAKIZUNA

**Oinatz Arrozpide Blanco**

Jaio da Oinatz, Oiana Blancoren eta Aitzol Arrozpideren etxeko kide berria. Maiatzaren 22an jaio zen 23:25ean; amari nahikoa lan eman ondoren mutiko ederra jaio zen, gainera, 3.630 gramorekin. Hasieratik oso txintxo eta lasai egon da; gurasoen arabera, aingerutxo bat dute etxean! Bide batez, Mirotxa sariarengatik eskertu nahi ditu Oianak Arraun Elkarteak lerro hauen bitartez.

» ZORIONAK!

Euskara batzordeari

Euskararen erabilera jasotzen duen kaleneurketak helduen artean euskarak beheraka egin duela utzi du agerian. Euskara Batzordeak ere hala aurreikusita, Orioko errealitateari buelta eman nahian, *Bizi-Bizi* egitasmoa jarri du martxan.

Euskararen osasuna hobetzeko proiektu eta egitasmo guztiak dira ongi etorriak. Azkenak, gainera, baina badu berezitasun bat, Aia eta Orio bezalako euskararen arnasmuneetarako pentsatua baita.

Euskaraz hitz egitearen garrantzia eta horrekiko kontzientzia indartzeko helburuarekin sortua, herriartekin batera diseinatutako aurrerapausoak eman nahi ditu, horrez gainera.

943 572 870

KOASTA

Wifi zerbitzua

Kopak, gau giro aparta...

Lizaso dekorazioa

Eusko Gudari, 48

Tel: 943 83 07 84 Faxa: 943 24 87 48

ardoak, urdaikiak, gaztak, kontserbak, janari prestatuak

etxeraino eramaten ditugu

KARKARARRI

943 83 09 84 aita lertxundi, 36 ORIO

KOLON TXIKI

uharkogis jatorria

Herriko Enparantza, 4 ORIO

Tel. 943 83 00 44

LOBETXU JATEIXEK

Eusko Gudari, 18 Tel: 943 83 00 07

LEIHOLAN

Aholkularitza teknikoak eta erakusketak

Fabrika Agurte Industrialek Agote, 5. 20740 Zestoa

Erakusketak San Frantziska, 1. 20800 Zarautz

Aita Lertxundi, 21. 20810 Orio Tel: 943 89 49 36

Aita hil zioten neska kementsua

Oroimenaren kutxa

Zarauzko Zine Modelo. Maiatzak 31, gaur zortzi. Zarauzko postalak, 36ko gerra liburuaren aurkezpena, Ama-goa Gurrutxaga egileak. Ondoa laurogei bat urteko amona eseri zait. Segituan, argiak itzali eta egilea azalpenak ematen hasi da; pantailan gerra garaiko argazkiak, eta orduko protagonista batzuen hitzak. Halako batean, argazki batean gizon bat eta haren eskutik haur txiki bat. *Ese es aita, yyo la niña, aquellos sinvergüenzas lo mataron, me quitaron el padre para siempre, canallas...* Aretoko iluntasunean, isiltasun hartan, amonaren hitzek zirrara sortu didate.

Aurkezpen saioa amaitu eta Tapia soinu-jolea 1936ko gerrako kantuak abesten hasi da. Musikaren babesean, galdera egin diot: *¿le mataron a su padre?* Berehala hasi zait, arrapaladan: *sí, lo mataron a tiros en la carretera a Aizarnazabal, lo dejaron tirado en la cuneta, algunos vecinos del pueblo lo recogieron y lo llevaron al cementerio.*

Ekitaldia bukatu, amona agurtu eta liburuarekin etxeratu naiz. Berehala ekin diot: Francisco Cazon Pelaez, Malagan jaioa. Euskal Herrira etorri, donostiar batekin ezkondu eta lau seme-alabaren aita. 1936an Orioko Arin y



Aita-alabak Orioko Goiko Kalean. ZARAUZKO POSTALAK 36KO GERRA

Embilen egiten zuen lan, ebanista. Zarautzen bizi arren, ama-alabak Orioko moja-etxean zeuden aita eraman zutenean. Orioko zubia eraisteko dinamita jarri izana leporatu zioten hiltzaileek.

Eta 1936ko bi urteko haurra gogoan, oraingo amona kementsua, *Leteren sehaskanta haur andaluz bati* datorkit, garratz: *gaueko hau-*

rra, ekarrizintuzten lur arrotz hontara, zure gurasoek lan eginez bizi nahi zuten, ez morroi gisa. Bota zintuztenek irakatsiko dizute hartu zintuen lur hau madarikatua dela; bultza nahiko zaituzte herri baten desegitera; hain maltzur dagorrotia, hain luze eta ilun gaua.

¡ IÑAKI ITURAIN !

» JAIOTAKOAK

- Alain Peña Fernandez, Orion, maiatzaren 22an.
- Oinatz Arrozpide Blanco, Orion, maiatzaren 22an.


» EZKONDUTAKOAK

- Fabiana Arruda de Souza eta Jiri Dobrovolny, Orion, maiatzaren 25ean.

» HILDAKOAK

- Rebea Barjakoba Agoñes, Zarautzen, maiatzaren 25ean. 31 urte.
- Juan Gorostidi Ezeiza, Orion, maiatzaren 25ean. 73 urte.

Eskela edo urteurreneko gogoangarria KARKARAN jarri nahi baduzu, deitu gure telefonora: **943 83 15 27**



LURDES
ARRAINDOGIA

Eusko Gudari, 4 - Tel. 943 83 00 24

le zpaindegia
MARIJO

Neska eta mutilentzat

Eusko Gudari, 8 - bajo
Tel. 943 13 47 29
ORIO

MIRANDA
WORLD CLASS

larima, ate, leiho, eskalera... behar diren arotz lanak egingo dituzte

Urdaneta bidea, 1 -669 42 32 70- ZARAUTZEN

PERTSIANAK
AKO MAZ

Aluminio, PVC Venezianak Motorrak...

Tel. 943 13 29 01 Mugikorra 600 70 52 27

“Deserosoa da euskara ez dakidalako besteek gaztelaniaz hitz egin beharra”

Guillermo De la Calle De la Calle

Euskara ikaslea

Puerto de Santamariakoa -Cadizkoa- da Guillermo De la Calle. Oriotar batekin Madrilen zazpi urtez bizi izan ondoren, orain dela zazpi hilabete etorri ziren Oriora. Hemen bizi behar badu euskara ikastea beharrezkoa duela pentsatu eta horretan ari da

IRATIAGIRREAZALDEGI

Maitasunak ekarri du Guillermo Oriora. Eneritz Illarramendi oriotarra Madrilen ezagutu eta orduan hasi zen Oriora etortzen neska eta haren familia bisitatzeraz. Zazpi urtez Madrilen egon ondoren biek argi zuten ez zutela han gelditu nahi. Cadiz eta Orio biak dituzte gustuko eta abuztuan etorri ziren hona, gelditzeko.

Etorri eta berehala euskara ikasten hasi zinen.

Oriora etorri naizen urte hauetan euskara inguruan izan dut. Hona bizi izatera etorri eta euskara ikasteko deia sentitu nuen, euskararen bidean pauso batzuk aurrera emateko beharra.

Euskara behar al da Orion bizi izateko?

Jakin gabe ere moldatuko nintzateke, denek laguntzen dute-eta, baina hemengo giroa euskalduna izanik ez da logikoa batek ez dakielako gainontzekoek gaztelaniaz hitz egin beharra; horrek deseroso sentiarazten nau. Zazpi urte hauetan belarriak zabaltzen saiatu naiz lagun eta familia arteko elkarrizketetan; beraz, euskara entzutera ohitua nago.

Gramatika ikasteko eta euskaraz hitz egitera ausartzeko hasi naiz euskara eskoletan. Esaten ari nintzen hori kontrolatu gabe esaterik ez nuen nahi. Orain pixkanaka hasi naiz erosketetan, tabernetan... Lagun artean ere hitz egiten dut, hanka sartu arren nahikoa konfiantza dago-eta. Gehiena ulertzen dut eta batzuetan jendea harritu egiten da aurreratu dudala ikusita.

Etorkizunean ere hemen bizi nahi badut ikasi behar dudala iruditzen zait. Hala ere, euskara ez da hizkuntza erraza eta urte batzuk behar dira maila hartzeko. Eskoletan, gainera, euskara batua edo jaso ikasten dugu eta herrian hitz egiten denarekin konparatuta zailagoa da, naturaletik aldentzen baita.



Bestalde, hizkuntza bat ikasten txikit hasita errazagoa da jasotzea; baita elebidunak diren herrietan, hirugarren hizkuntza bat ikastea ere. Lanerako ere abantaila da ahalik eta hizkuntza gehien jakitea.

Euskara eskoletan zer moduz moldatzen zara?

Oinarrizko gauzekin hasi ginen: aditzekin, nire ustez konplexuena dena; deklinabideak... Bost lagun gaude: bi madrildar, ulertu arren euskaraz hitz egitera sekula ausartu ez den zarauztar bat, kanariar bat eta ni. Hasieran gogor samarra zen, baina aukera badago aprobetxatu egin behar da. Gaztelania gehiago erabiltzen genuen lehen, baina irakasleari esan izan diot berak guri euskaraz hitz egiteko eta saiatuko garela ulertzen; ezin badugu, erantzungo dugula gaztelaniaz; baina pixkanaka guk ere gero eta gehiago hitz egiten dugu euskaraz.

“Eskoletan euskara batua edo jaso ikasten dugu eta herrian hitz egiten denarekin konparatuta zailagoa da, naturaletik aldentzen baita”

“Paddle eskoletan hitz gutxi batzuk esan ditzaket euskaraz, baina oinarrizko gauza gehiago ikasi nahi nituzke, argibideak euskaraz emateko.”

Gainontzean Orioko girora ohitu zara?

Bai, urte batzuk badira Eneritzekin Oriora etortzen hasi nintzela eta ezagutzen dut jendea, ingurua... Bikotekidea hemengo izateak ere herrian sartzea erraztu egin dit. Gainera, kiroldegian hasi naiz paddle eskolak ematen eta horrek jende berria ezagutzeko aukera ematen dit. Paddle eskoletan hitz gutxi batzuk esan ditzaket euskaraz, baina oinarrizko gauza gehiago ikasi nahi nituzke, argibideak euskaraz emateko. Gure euskara irakaslea paddle eskoletan nire ikaslea da, beraz, elkarri lagundu behar ko diogu batek besteari irakatsiz.

Orion jarraitzeko asmoa al duzu?

Ahal dugun bitartean bai, baina lanak agintzen du. Cadizen falta sumatzen dut, eguraldiagatik batik bat, baina gainontzean gustura nago. Euskara ikasten ere jarraituko dut. Gertuan izanik, liburutatik ikasteaz gain, errazagoa da entzunez jasotzea.

» AZOKA

Iragarkietarako txokoa. Iragarri nahi duzun hori telefonoz (943 83 15 27) zein e-postaz bidali dezakezu: karkara@karkara.com. Merke asko, gainera, doako zerbitzua baita gurea.

Saltzeko

- Hozkailu berria salgai. Orain dela hiru hilabete eresia. Tf.: 626 018 292.
- Kia Carens 1.8 monobolumena. Matrikula: 4405BVV. Tindatutako beirak, parrilla, kutxa eta barrutik erabat txukun. Asegurua 2014ko martxora arte. 2.500 euro. Tf.: 674 076 785
- Kale nagusian, 30metro koadroko etxebizitza eta lokala salgai edo alokairuan. Tf.: 609199 268

Galdutakoak

- Haize bolada batek balakoian zintzilikatuta zegoen 2 urteko ume baten txaketa zuri bat eraman du. Mayoral markakoa eta Malen izenarekin. Aurkitu

duenak mesedez udal-tzainen bulegoan utzi edo deitu. Tf.: 669 461 449.

- Aliantza galdu dut Orion. Inskripzioa: P.M.A.-A.J.M.A. 31/10/68. Norbait aukitu badu deitu. Tf.: 619 765 083.

Alokatzeko

- Etxebizitza hartuko nuke errentan abuztura-ko. Ezinbestekoa igogailua izatea. Tf.: 616544478

Lan eskaera

- Udarako lan bila nabil, astelehenetik ostiralera. Umeak zaintzen aurrez aritutakoa. Tf.: 697 826 689 (Itziar)

Lan eskaintza

- Emakumea behar dugu

haurra zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tf.: 650 495 160 (Iñaki)

- Uda garaian nekazal-turismoan lan egiteko pertsona bat behar dut. Ingelesez maila ona izan behar du. Tf.: 669 781 963.

Erosteko

- Lur zati bat erosiko nuke Aia, Orrio edo Zarautz inguruan. Borda baldin badauka hobe. Tf.: 615 790 965

Bestelakoak

- Uztailean Brain Gym ikastaroa Lehen Hezkuntzako ikasleentzat. Interesatuok deitu 655726291 zenbakira -Irkus-.

» ITSASOA

EGUNA	ITSASGORA	ITSASBEHERA	ILARGIA
07	04:35 eta 16:52	10:30 eta 22:54	☐
08	05:11 eta 17:27	11:06 eta 23:31	☐
09	05:46 eta 18:00	11:41 eta	☐
10	06:20 eta 18:34	00:07 eta 12:17	☐
11	06:54 eta 19:08	00:43 eta 12:52	☐
12	07:29 eta 19:43	01:19 eta 13:28	☐
13	08:05 eta 20:20	01:56 eta 14:06	☐
14	08:45 eta 21:01	02:36 eta 14:47	☐
15	09:30 eta 21:48	03:20 eta 15:34	☐
16	10:22 eta 22:45	04:11 eta 16:29	☐
17	10:39 eta 23:04	05:08 eta 17:31	☐
18	12:31 eta	06:11 eta 18:38	☐
19	00:59 eta 13:37	07:15 eta 19:44	☐
20	02:04 eta 14:37	08:15 eta 20:44	☐
21	03:04 eta 15:32	09:11 eta 21:40	☐

» ZAINTZAKO BOTIKAK

EKAINA

- 7an, Etxeberria.
 - 8an eta 9an, Gallo.
 - 10ean, Iriarte.
 - 11n, Larrañaga.
 - 12an, Mutiozabal.
 - 13an, Etxeberria.
 - 14an, Gallo.
 - 15ean eta 16an, Azaldeg.
 - 17an, Larrañaga.
 - 18an, Mutiozabal.
 - 19an, Etxeberria.
 - 20an, Gallo.
 - 21ean, Azaldeg.
 - 22tik 28ra, Lasa.
- Gaueko zaintza: Iriarte.

- **Azaldeg:** Urdaneta kalea, 8. 943133183 Zarautz
- **Etxeberria:** Gipuzkoa kalea, 17. 943832398 Zarautz
- **Mutiozabal:** Kale Nagusia, 12. 943832970 Zarautz
- **Larrañaga:** S. Frantzisko, 16. 943133814 Zarautz
- **Lasa:** Herriko plaza. 943830936 Orrio
- **G. Artiano:** Zigordia kalea, 17. 943134019 Zarautz
- **Iriarte:** Zinkunegi, Pilar txo Enea. 943132983 Zarautz
- **Zulaika:** Bizkaia kalea, 41. 943133994 Zarautz

LUXARBE
igeltseritza

Igeltseritza orokorra, denetarik egiten dugu. ☒

Presupuestoak eskatu konpromisorik gabe ☒

Lan txukuna eta merkea ☒

Tf. orok: 943 83 59 00

mauka

PAPERDENDA LIBURUAK ETA OPARIAK

TEL: 943. 572083
FAX: 943. 571190
lasenjo@hotmail.es

INES ASENJO
IBAI ONDO 13
20810 ORIO

MANTEROLA S/L
ESFERA ETA RETENTZIOKO
BALBULAK

Sarriago aztoa - 18 postakutza
Tel: 943 830 743
Fax: 943 134 834
E-mail: trimanterola@euskaltel.net
28915 ORIO - GIPUZKOA

Enferako balbula
AENOR kalitate zertifikatutakoa

Nahikari

HAUR DENDA

Arantzale Kalea, 35
28100 - Orrio
Tel: 943 83 36 30
www.nahikari.es

FISIOTERAPIA Garkoitz Aristegi eta Natalia Wierszen
NUTRIZIONISTA Garbete Aizpuru

sinergia investigacion
fisioterapia

ibai ondo, 1, behe-oina | ORIO | 943 13 05 77 - 685 71 85 95

Sagasti
LEIHOAK

ROBERTO SAGASTI

Tf / fax: 943 13 00 77
sagastileihoak@telefonica.net
Arantzale kalea, 65
20810 Orrio (Gipuzkoa)

Orio

Festa

■ Ekainaren 8an, *Ezer ez ta festa*: triki poteoa, 19:00etan, herriko tabernetan; bokatak, ondoren; Ritmo Callejero eta Kannibo taldeen kontzertua, 23:00etan; Dj Sach eta DJ Txaladuras live ondoren, Etxeluze gaztetxean.

■ Ekainaren 8an, *Berriak 10 urteren baitan*, bertso trama, 22:00etan, Zarauzko Aritzbatalde kiroldegian. Tramagi-
lea: Josu Goikoetxea; Musika: Aitor Atxega; Bertsolariak: Uxue Alberdi, Andoni Egaña, Amaia Agirre eta Amets Arzallus. Sarrerak: Orion, Kolon Txikin eta Aian, Iturriozenan.

Abesbatza

■ Ekainaren 8an, Orioko Udalak eta Salatxo abesbatzak antolatuta, Sant Celonioko -Bartzelonako- Coral Briancó abesbatzaren emanaldia. Salatxo abesbatzak ere kantatu du. 20:00etan, elizan.

Bizikleta eguna

■ Ekainaren 8an, Zaragueta Herri Eskolak antolatuta, VII. Bizikleta eguna. 10:30ean, Zaraguetatik hasita.

Dantza

■ Ekainaren 15ean, Danbolin Musika Eskolako ikasleen dantza emanaldia, 17:00etan, Karela kiroldegian.

■ Uztailean, Uda dance ikastaroak, Kosta tailerlean. Uztailaren 1etik 12ra. Hilabete erdia: 40 euro; osoa: 65 euro.

Izen ematea ekainaren 24ra arte 637 256 851 zenbakian edo *o.uarda@hotmail.es* helbidean -Warda Mallal-.

Irteerak

■ Ekainaren 15ean, Orio-Donostia-Orio itsasoz, 17:00etan, Orioko kirol portutik. Izena emateko: 943 8355 65.

■ Ekainaren 15-16an, Orioko Arraun Elkarteak antolatuta, Bartzelonara. Irteera: hilaren 15ean, 06:00etan, autobus geltokitik.

■ Ekainaren 26an, Zaharren Babes Lekuak antolatuta, Laredora, 09:00etan autobus geltokian. Prezioa: 35 euro. Txartelen salmenta: ekainaren 18an, 16:00-18:00.

Musika

■ Ekainaren 17an, Danbolin Musika Eskolako preinstrumentuko kontzertua, 17:00etan, Danbolin musika eskolan.

■ Ekainaren 17tik 21era, Danbolin Musika Eskolako ikasleen emanaldiak, Kultur Etxean, Salatxo aretoan eta Danbolin Musika Eskolan bertan.

Traste zaharrak

■ Ekainaren 12an, traste zaharren bilketa, ohiko zabor ontzien ondoan. Atera aurretik udaletxera deitu zer aterako duzuen jakinaraziz.

Tf.: 943 83 03 46.

Bingoa

■ Ekainaren 19an eta 26an, Zaharren Babeslekuak antolatutako bingo saioa, 16:30etik 18:30era, Kultur Etxean.

Odol ematea

■ Ekainaren 21ean, Gipuzkoako Odol Emaileen Elkarteak antolatuta, odol ateratzea, 18:30-20:30, anbulatorioan.

Pintxo txikiteoa

■ Ostiralero, pintxo txikiteoa, 19:00etatik aurrera, Orioko taberna jakinetan.

Arrauna

■ Ekainaren 22an, Orio Arraunketa Elkarteren aurtengo denboraldiaren aurkezpena, 12:00etan, Herriko Plazan.

Bertsolari txapelketa

■ Ekainaren 22an, Euskal Herriko Eskolarteko 25. Bertsolari txapelketako finala, goiz eta

arratsalde, Karelan.

Aia

Hitzaldia

■ Ekainaren 10ean, Eskola egokitzapenari buruzko hitzaldia, 17:00etan, Kultur Etxean. Hitzlaria: Nerea Mendizabal.

Silo-Bolak

■ Ekainaren 11n, Silo-bolen bilketa. Informazioa lortzeko: Urkome -943 81 65 00- edota Igor -660 049 751-.

Fisioterapia

■ Astearteetan, fisioterapia zerbitzua, Kultur Etxean. Fisioterapeuta: Miren Gozategi. Ordua hartzeko: 669470642.

Podologa

■ Ekainaren 22an, podologoaren kontsulta, sendagilearen etxean. Aurrez ordua hartzeko: 943131144.

Udako ordutegia

■ Ekainaren 17tik irailaren 20ra arte, Kultur Etxearen ordutegia: 08.00-14.00.

■ Abuztuaren 5etik 31ra, Kultur Etxea: itxita.

Atzeko azala: Orioko txaranga Baionako futbol zelaian Realeko jokalariek in



ERAIKINEN ERREABILITAZIO ERAGINKORRA

Komunitateentzat Dirulaguntzen Kudeaketa

XSA
arquitectura

- ITEa, egungo egoeraren analisia
- Aholkularitza energetikoa
- Dirulaguntzen kudeaketa
- Lizentzien tramitazioa
- Informeak, proiektuak eta obrak



Borja Agirresarobe Lopetegui 635731722

Iturribide 8, 5-6 bulegoak, Zarautz 20800 (Gipuzkoa) Ifnno/fax 943 134 358 www.xsarkitektura.com

